

uk

95. zenbakia / 2006 martxoak 5



# Aintzat hartu



## Begiraiozu Bai Euskarari Ziurtagiriari

www.baieuskarari.org  
902 43 00 26



laguntzailea:

**UK** aldizkaria

## UK galeria > Pedro Zarrabeitia



Ingeniaria bada ere, bizitza osoa fotografiari lotua eman du Pedro Zarrabeitiak. 1975ean Getxoko Irudi Talde fotografiko gogoangarria sortu zuen. Oso ezaguna da kolorea lantzeko daukan trebetasunagatik. Aitua da diapositiben tratamenduan, argazki margoztuetan eta irudi digitaletan. Bilboko Arte Ederretako Museoa argazkiak eskegi zituen lehenengo artista izan zen Zarrabeitia, 1980an. Montreal, Chicago, Denver edota Renon erakutsi ditu bere argazkiak eta zenbaezinak dira jaso dituen sariak. Bilboko Arte Ederretako Museoa, Euskal Museoa, Donostiako San Telmo, Zarauzko Photomuseum, BBK... makina bat lekutan daude bere lanak. Hamar bat liburu ere egin ditu, besteak beste, *Estudios de color*, *Mobiliario urbano*, *El pais navajo*, *Expresion mural de Bizkaia*, *Bilbao puente al siglo XXI*, *Getxo fotografia...*



www.pedrozarrabeitia.com

«Emakumea, baratza eta errota egunero zaindu behar» Euskal esaera zaharra

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Emakumezko beharginak, Mikel Martinez.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Joseba Butron. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Axpeko harrobia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Nikola Amezaga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Zakarontziak, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Inauteriak Leioan, Juan Luis Markaidea.
30. BERBETAN. Joseba Iriondo, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Getxoko argazki panoramikoak.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Euskal film laburrak.
43. MUSIKA. Musika emakumezkoen eskutik. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Kamasutra euskalduna. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Jabi Sagasti.

### EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Jesus Mari Gabiña.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Algortako Barbarellara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Ereaga futbol taldea, 1944.
54. AITORMENAK. David Barbero.



30 Joseba Iriondo



11 Nikola Amezaga

### Berbetan

Zarauztarra izanagatik ere, Joseba Iriondo kazetaria Azpeitian jaio zen, 1969an. *Gaur Egun* albistegiaren aurkezlea da orain. Getxon bizi da.



46 Jesus Mari Gabiña



10 Kepa Urkiza



14 Hobby&Art



54 David Barbero

**UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA**

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta  
**HELBIBIDEA:** Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171  
 Tel: 94 491 13 37  
**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Oiane Moran  
**FOTOGRAFIA:** Asier Menbaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Jon Etxebarria  
**KOLABORATZAILEAK:** Unai Brea, Bittor Egurrela, Xabier Gilbain, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lores, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.  
**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Gorka Vázquez  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)  
**KANPO HARREMANAK:** Gorka Orueta  
**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**

Itxasgane Etxea / Karitatea 1  
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du**

**Aldizkari honek Leioako Udala**

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Aldizkari honek Erandioko Udala**

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Aldizkari honek Golioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du**

**Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eroski Fundazioaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du**

**uk**  
94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

gugeu

# Ale honetan

**Hauxe duzu** irakurle 2006ko hirugarren UK, martxoaren 8an, hau da, emakume langilearen egunaren atarian argia ikusi duena. Eta emakumezko gutxi atera zaizkigu ale honetan. Kezka hori beti izaten dugu aldizkariko edukiak aukeratzeko orduan, hau da, generoarena. Gure lantaldean emakumezkoak gehiago izan arren, gizonezko gehiago etortzen zaizkigu gogora beti edukiak aukeratzeko orduan. Gizartearen ispilu izango da akaso.

Gure aldizkarian jorratzen ditugun gai gehienak oso hurbilekoak izaten badira ere, kanpora begiratzea inportantea izaten da, gu ez gara-eta munduaren zilborra. 30 urte baino gehiago irauten du Saharako herriaren gatazkak. Errefuxiatuen kanpamenduetan oso baldintza latzetan bizi dira 200.000 lagunetik gora eta hori gutxi balitz, euren basazko etxe gehienak jausi berri dira han egon diren uriolen ondorioz. Horregatik **Jesus Mari Gabiña** Leioako Sahararen Aldeko Elkarteko kidea elkarrizketatu nahi izan dugu. Gorriak ikusten ari den beste herrialde bat Irak da. Mikel Laboak bere azken diskoko kanta batean horrela dio: *Que barbaridad, Bagdad!* Eta halaxe da. Hildakoen zerrenda egunetik egunera etengabe handitzen da eta egoera gero eta okerragoa da. Hango gerraren berri ematera joan zen **Joseba Iriondo** kazetaria eta bere iritzi eta usteak jaso nahi izan ditugu orrialde hauetan.

*Gu geu* txoko hau ez genuke lagun baten heriotzaren berri eman barik amaitu nahi. **Kepa Urkiza** argazkilarri algortarra oso gazte joan zaigu. Goian bego! 4

**UK-ko lantaldea**

## irakurleak

**Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37**

## matematika aplikatua



# Goizero irakurri > berria



[irudia]

PORTU ZAHARRA, 2006

**Andre beharginak** / Aurrerapenez beteriko garai hauetan gauza batzuk aldaezinak direla ematen du.

Antzinako irudi legez, sardina saltzailea, urte askoan gure herrietako kaleak bete dituena. Ahaztuko ete zaigun beldurrez, norbaitek eskultura egin dio Portu Zaharrean. Alabaina, gauzak desagertu beharrean eraldatu egiten direla esan zuen baten batek eta arrazoia ez zitzaion falta, sardinera horren isla dira-eta etxeoandreak, erizainak, maistrak, amak, fabriketako emakume langileak... m / Argazkia: **Mikel Martinez**

## Leihatila

&gt; Maddi Albizu

## Hipokresia mugagabea (II)

Zenbaki honetarako lehiatila hau idaztean aurrekorako hautatutako izenburua ezin hobeto zetorkiola oharatu naiz. Beraz, hona hemen "hipokresia mugagabea" artikulua sortaren bigarren atala. Jakingo zenutenez Basaurin gazteentzako 42 metro koadroko 35 etxebizitza eraikitze proiektu berrizalea aztertzen ari dira. Etxeok 200 eurotan alokatu nahi zaizkie Babes Ofizialeko etxeetara iristeko baldintzak betetzen ez dituzten gazteei. Hori dela-eta sortutako hika-mikaren haria prentsaren bitartez jarraitzen ari naiz eta, benetan diot, erabat eskandalizaturik nago batzuk hain eskandalizaturik ikusteagatik. "Kaxa-etxeak", "infraetxeak", "tuperware-etxeak" eta horrelakoak entzun ditut proiektua kritikatzeko dutenen ahotik. Hamaika entzuteko jaiok gara! Duinagoa al da 35 bete arte gurasoen etxean bizitzea ala? Dirudienez, etxebizitzaren arazo larriari behin betiko irtenbidea aurkitu arte ezin da ezer egin. Berriz ere egiaztatu da "onena onaren etsai amorratua dela". 4

## photoshop &gt; tximinoen uribe kosta



Irudiak eta manipulazioa: A. M.

## IRITZIA

«Zer eskatzen diozu egun berri bakoitzari? Zeintzuk dira goizero ohetik altxatzeko zure arrazoiak?». Gai hau proposatu diogu hainbat laguni. Oraingoa Jose Butron irakaslearen txanda da.

## Bizitzeko arrazoiak

**Aspaldiko** esana da ezen galderarik errazena direla erantzuteko zailenak. Esaterako, «Zer naiz ni?, Zertako bizi naiz?, Nora noa? Zer egin behar dut bizitza honetan?». Bestela ere planteatu liteke, umeen modu xaloan: «Zergatik?». Eta erantzun ondoren, berriz ere «zergatik?», eta berriz ere, eta berriz. Ausardiari edukiz gero, merezi du proba egitea. Pentsaezineko ondorioetara iristen da bat. Kezka existentziala gordin-gordin azaleratzen da.

Bestela, arriskurik gura izan ezean, bada beste bide bat, oso erraza: galderarik ez planteatu, horrelako katramiletatik paso egin, eta bat ere kezka barik bizitzen jarraitu, alienatuta; alegia, "mundu guztiak egiten duena eginez bizi".

Hortaz, nola joka dezake nor berek? Bada, hona bi ardatz. Batetik, oinarrizkoena, egun bakoitza zerbait balioetsua bezala hartu, nola balioesten dituen bizitzeko egun gutxi geratzen zaizkiola dakienak. Hots, bizitzeko dugun egun bakoitza opari

zoragarritzat hartu, eta esker oneko jarrerarekin ekin.

Bestetik, *izan edo ez izan* gatazka planteatu eta horrekin kontsekvente jokatu. Erronka jo eta aurrera. Alegia, hemen bizi gara, gure Euskal Herri honetan, planetako txoko honetan, gure gizartean, beste gizarte batzuen ondoan eta horiekin batera. Hori da gure maila horizontala, gure itsasoko uraren azala. Ondorioz, horrek kontzientzia soziala eragin behar digu: ezin gara bizkarroiak izan, ezin gara bizi guban bakarrik pentsatuta, ezin

## «Etorriko diren beste batzuen bitarteko baino ez gara. Katebegi bat, kate luzean»

gara globalizazio eta kontsumismo alienantean erori; alegia, konpromiso batzuk hartu behar dira gizarte honekiko eta orobat besteekiko, hobetzeko, eta lan egin: dela gizarte mugimenduetan, dela kulturaletan, dela politikoetan, dela sindikaletan... Baina zeozertan inplikatu egin behar da, denetatik paso egin barik.

Bestetik, maila edo ikuspegi bertikala, itsasoaren sakona. Bada, hemen bizi gara... baina ez beste barik hemen agertu garelako. Ezpadaze gure aurretik izan direnei esker; gure arbasoen ondorengo gara, hainbat belaunaldiri zor diogu gu orain hemen bizi ahal izatea. Eta, aldi berean, etorriko diren beste batzuen bitarteko baino ez gara. Katebegi bat, kate luzean. Hori horrela, jaso dugun kultura, hizkuntza, bizitzeko jakituria, tradizioak... aintzat hartu, garatu, aberastu eta transmititu beharrean gaude. Egunen batean, amaieran, esan ahal izan dezagun «Bai, bizi izan naiz, duintasunez». 4

Joseba Butron



[lehen]



[orain]

## Iraganez doa denbora\* beti / AXPEKO HARROBIA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

**uribitakora** > errepidean errez biderik ez!



Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Jone etxean dago  
nire zain, artega,  
benga, Peru, mugitu  
sartu terzera...  
Piii, piii... Utikan!... Zoaz  
kapotik hartzera!  
Nahiz eskuinetik izan,  
aurrera, aurrera!  
Trenbide-barrera,  
Rontegin karrera,  
han, tunel sarrera...  
**ZE AUTO ILERA!**  
Berriz ere berandu  
noa etxera!

Itsas lerroa heltzen den  
auto lerro bat dut proan  
ta airea ez da giro  
nire Ford Fiesta retroan.  
Depositua ez dakit  
dabilen azken litroan  
ta halere mugimendurik  
ez dago epizentroan.  
Sikiera euroak gora  
baletoz taximetroan!  
Jonek bakarrik eseri  
beharko du Teatroan...  
Galtzarbezko paliopelan  
joaten nintzen metroan  
autoan, aldiz, eroso  
baina metroan-metroan.

Jone, jo, hartu mobila...  
Jode... komunikatzen dit!  
-Ba al dago Jone etxean?  
-Oaintxe bertan alde egin di!  
Kaka zaharra! Kagatu dut!  
Potroak moztuko dizkit!  
Ze ostia gabiltza denak  
bakoitza bere aldetik?  
Bakoitza bere autoan,  
elkarrekin joan barik?  
EUREKA! Auto-ilara  
saihestuko dut Unbetik!  
Idea ona izan ahal zen,  
izan zitekeen, badakit,  
ez baldin balitz pasatu  
beste askoren burutik.

\* Doinua: Beroiarena eta Baserrian jaio nintzan

\*Oharra: letra etzanean dagoena irakurri  
azkar-azkar: gainerakoa, astiro-astiro.



**txistea** > hitlerren suizidioa

Historia klasean irakasleak ikasleari:  
-Ea ba, Arantxa. Esango al zenidake zergatik egin zuen bere buruaz beste Hitlerrek?  
-Gasaren faktura pasatu ziotelako!

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

**begizorrotz** > gora euskadi, made in spain (and china)

**The balde** UKgileok beti arreata eta plazer handiz irakurtzen dugun aldizkari zoragarria da. Bere barruko orrialdeetan harritzen eta gozatzan ditugun kontu bitxiak egoten dira beti. Esaterako, orrialde honetara ekarri dugun hau. Azken hamarkada bi hauetan gure herrialdeko jaietan sinbolo edo ikur bihurtu den *Gora Euskadi* txanoa, milaka euskaldunok jantzi duguna, Espainian, zehazki Kordoban, fabrikatzen dela azaldu digu *The balde* euren azken zenbakian. Beno, hori orain arte, izan ere *Gora Euskadi* txanoaren azken sortak Txinan egindakoak ei dira. m



www.thebalde.net



**armarriak** > urduliz

**Jatorriz** Uribe merindadeko elizatea da Urduliz. Fidel batek zuzentzen zuen elizatea eta Gernikako Batzar Nagusietan 50. jararlekua zeukan. Antza denez, Etxebarria eta Butroitarren jaurerrikoa zen eta, XIX. mendearen azken partean, Butroiko gaztelua eraiki zuten Urdulizko harrobitik ateratako harriarekin. Armarrian, urrezko hondoan arbola bat agertzen da erroitik aterata, aldamenean bi ihi-txorirekin (adaburuaren alde bakoitzean bat). Goiko partean, berriz, urrezko hiru izar dauzka, kolore urdinez margotuta. Puntan, hiru erbi-txakur gorri, bat enborra zeharkatzen eta beste biak enborraren aldamenean. m

Urdulizek gaur egun darabilen armarria

saiaz getaria



HOTEL


Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



..harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

## heriotza > Kepa Urkiza argazkilaria gogoan



**Se la vi!** Otsaileko azken egunetan Kepa Urkiza argazkilaria bikain algortar peto-pettoa bere altzora eroan du heriotza deitzen dugun gertakizun saihestezin gorrotagarri horrek. Pertsona alaia, bizizalea, umoretsua zen Kepa. Hara! Eta izaten jarraitzen du bera ezagutzeko zortea eduki genuen lagun guztion gogoan. Esan bezala, goitik beherako argazkilaria izan da Kepa, beti kamera aldean zebilen, ez zuen sekula ahazten. *Egin* egunkarian makina bat urte eman zituen beharrean. Gero Areetan paratu zuen argazki denda eta oraintsu arte han ibili da lanean. UKrekin ere beti eskuzabal jokatu zuen eta argazki asko musu-truk eman zizkigun. Gero arte, laguntxu! m

Ezkerrean, Kepa Urkiza 1975eko Portu Zaharreko jaietan. Azpian, Paelletan Kepak ateratako argazki bat



DIDAK  
**hamilton**  
IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
    - Maila guztiak
  - Ingelesa 3 urtetik aurrera
    - Talde txikiak
  - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
didakhamiltom@euskalnet.net

**VASCASA** inmobi -

Vascasa Sopelanak irabazien %3 bezeroak aukeratzen duen Gobernu Kanpoko

- Zure etxebizitzaren dohainezko balorazioa
- Vascaredit finantziarioa, zure neurria
- Zure salerosketen kudeaketa osoa
- Zure etxebizitza saldu baino lehen, jarri gurekin

Eleizalde kalea z/g. 48600 Sopelana  
t.: 94 676 37 08 - Fax: 94 676 50 18 - sopela-

[erreturua]



AZ enpresa sortu zuen Nikola Amezagak orain dela 15 urte

## Nikola Amezaga > enpresa-gizon petoa

**Errotatu inguruan,** Berango eta Getxo arteko poligonoan, AZ enpresa dago. Antolaketa eta Zerbitzuak, alegia. Hantxe topatu dugu Nikola Amezaga zuzendari eta ugazaba, lanean bakarrik hamaiketakoaren orduan. Eta beharginak? *“Denak oportetan, otsaila oso hilabete txarra da, ez dago ia lanik”*. Amezagak mahai handi baten bestaldean hartu gaitu; paperek estaltzen dute ia guztiz -mahaia, ez Amezaga-, baina ordena da nagusi. Hormetan, nongura, antzinako Algorta erakusten duten erretratu zaharrak, aldizkari honetan hain gustuko dauzkagun horietakoak. *“Betidanik izan naiz Algortakoa; garrantzitsua da bereizketa egitea, lehen gehiago azpimarratzen zen hori, zein auzotakoa zen bakoitza, eta Andra Marikoak baino ez ziren getxoztarrak”*. 38 urteko gizasemea, hamabost zeuzkanetik du ezagun lana. *“Ez nintzen estudiante itzela eta...”*, dio apal. Beste asko baino hobea izango zen hala ere, Magisteritza karrera amaitzeko gauza izan zen eta. *“Zeozter ikastearren ikasi nuen, eta orain damu naiz batzuetan; ekonomia-edo egin izan banu...”*. Ezertaz gehiegi jakin barik hasi zen, bazkideagaz batera, enpresa hazten, txikiatik handiagora, pausuz pausu, AEBetako *self-made man* onek legez. Orain, sarritan topatuko duzu euren furgonetaren bat kalean, edo euren siglak Getxoko kultur etxeak antolatutako ekitaldiren batean. Lan horregaz hasi ziren batez ere, baina neguan aspertu egiten zirenez, mudantzak egiten hasi ziren. Higitzen-burbuila delako hori hain puztuta dugun honetan, ez dira lan faltan ibiliko. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

# Hiri Hondakinak Aldundiaren esku

Getxoko hiri hondakinaren tratamendua **“ingurumenaren aldetik modu iraunkorren eta ekologikoki arduratsuan”** gauzatuko dutela adierazi dute

**Apirilaren 1etik aurrera, eta 2014ra arte, Bizkaiko Foru Aldundia egingo da kargu Getxoko hiri hondakinaren tratamenduz. Aldundiak Garbiker enpresari emango dio zaborraren tratamendua egiteko ardura eta trataera “ingurumenaren aldetik modu iraunkor eta ekologiko arduratsuan” egiteko asmoa daukala jakinarazi du.**



Getxoko udal zabortegia

**Getxoko** udalak eta Aldundiak adostutako lankidetzatratamendua araberaren lehenengoak hiri hondakinak batzeko eta beharrezkoa den lekuraino eramateko ardura dauka; bigarrenak, zabor horren tratamendua hartuko du bere gain. Udalak tratamendu-zerbitzu horregatik hondakin tona metriko bakoitzeko 60,23 euro (BEZ barne) ordainduko dizkio Aldundiari 2006an. Kontuan hartuta urtean udalerrian 30.000 bat zabor-tona sortzen direla Aldundiarekiko kontua urtean 1,8 milioi eurokoa izango da. Ondorioz, herritarrek ordaindu beharreko zaborraren tasak gorakada nabarmena edukiko du: urtean gutxi gorabehera 60 euro gehiago (hilean 5 euro gehiago) ordaindu beharko dute getxoztarrek.

## Eztabaida luzea

Hiri hondakinaren tratamenduaren auziak eztabaida luzea eduki du. Oraintsu arte zaborra Getxoko zabortegira bideratzen zuen Udalak, baina zabortegia behingoz itxi beharra zegoen eta hondakinentzat interbide berria bilatu behar zuten. Lehiaketa deitu zuen Udalak eta Zabalgarbi izan zen aurkeztu zen

bakarra. Errausketaren aukeraren (eta zabor-tasaren gorakadaren) kontra agertu ziren alderdi gehienak eta horien artean Udal Gobernu kide Ezker Batua ere.

## «60 bat euro gehiago ordaindu beharko dute getxoztarrek zabor-tasa»

Aurtengo urtarril amaieran, EAJ, EA eta EBk osatzen duten Gorbenu Batzordeak Bizkaiko Foru Aldundiarekiko hitzarmena onartu zuen. EBko bozeramaile Iñaki Urkizak orduan adierazi zuenez, *“hitzarmena ona da, testuan batzen diren ingurumeneko klausulek Zabalgarbira eramateko hondakin kopurua mugatzen du eta beste bide batzuk hobesten ditu; gainera zabortegiaren itxiera ekarriko du”*. PP, PSE eta Getxo Bizia aurka

agertu ziren tasen larregizko hazkundera aragudiatuz, oraindik ere errakusketaren aukerak itzal luzea duelako usteagaz.

Dena dela, otsail amaieran eman zion oniritzia Aldundiko Gobernu Kontseiluak Getxoko Udalgaz adostutako lankidetzatratamenduari eta, esan legez, apirilaren 1etik aurrera eta hurrengo 8 urtetan Aldundiak erabakiko du zein bide eman Getxoko hiri hondakin solidoen tratamenduari. m

## Datu batzuk

- **Apirilak 1**, indarrean sartuko da hitzarmena.
- **60,23 euro** ordainduko dizkio Udalak Aldundiari tratatutako zabor tona bakoitzeko.
- **2014ra arte** iraungo du hitzarmenak.
- **Garbiker enpresaren** esku utzi du Aldundiak zabor getxoztarren ardura.

## Zelako Gaztelekua gura duzu?

Gazteen iritziak batuko ditu Udalak



Lokal hutsa betetzeko gazteen irizpideak kontuan hartuko dira

**Algortako** Urgull kalean (kultur etxe ohia lekutzen zen erakinean) paratuko dute Gaztelekua eta horren itxura, ekipamenduak eta eman beharko lituzkeen zerbitzuak zehazteko gazteen eta euren inguruko ideiak eta iritziak batzeko asmoa dauka Udaleko Gazteria Zerbitzuak.

Eztabaida eta sormen prozesu hori aurrera eramateko Ados Consulting enpresa kontratatu du Udalak 19.000 eurogatik. Haien izango dira 12-17 urte bitarteko gazteak eta euren harremanetan dauden elkarte, ikastetxe eta gurasoak harremanetan ipiniko direnak. Mahai inguru, eztabaida talde eta abarren bidez den

arte finkatuko dituzte Gaztelekuaren diseinua eta zerbitzuak. Udaleko Gazteria Zerbitzuko teknikari Unai Amezagak azaldu duen legez, *“Gaztelekuaren helburua ez da herriko beste elkarten lana eta eskaintza ondezkatzea edota haien lekua hartzea, dauden hutsuneak betetzea baino... eta horretarako euren prozesu osoan parte hartzea nahi duguz; enbiltzaileen, hartzaileen, gazteen beharrik eta iritziak batu nahi ditugu”*. Bestalde, prozesua gauzatzeko, hau da, eztabaidaguneak osatzeko iritziak eta hausnarketak batzeko eta ideiak zein erabakiak adosteko 5 hilabeteko epea eman du Udalak. m

Harremanetarako: 94 466 00 18

## UDALETXEAN EGINDAKO EZKONTZEN KOPURUA IGO DA

2005ean Getxoko udaletxeko batzar aretoan egindako ezkontzen kopurua %10 igo zen. Gainera, 73 ezkontzetatik 30 elebidunak edo euskara hutsez izan ziren. Halere, Bikote homosexualen legea indarrean sartu zenetik, ez da sexu berekoen arteko ezkontzarik egin. Bikotekide batek, gutxienez, urtebetez egon behar du udalerrian erroldatuta Udaletxean ezkondu ahal izateko.

## BABES OFIZIALEKO 5.000 ETXEBIZITZA ERAIKIKO DITUZTE ANDRA MARIN

Andra Marin 8.000 etxebizitza eraikitzeko hitzarmena sinatu dute Eusko Jaurlaritzak eta Getxoko udalak. Horietatik 5.000 babes zibileko etxeak izango dira. Beraz, EAEn egingo den hirigintza plan handienetarikoa izango da eta lanak urte bi barru astea espero dute. Proiektua honako sei gunetan eramango da aurrera: Martiturrin, Moreagan, Azkorrin, Saratxagan, Arteagan eta Mimenagan.

## EREAGAKO KAIA ERABERRITUKO DUTE

Ereagako moila “La Ola” eta Portu Zaharrarako bidea konpontzeko 2,5 milioi euro inbertituko ditu Udalak. Besteak beste, espaloia bost metro zabaldu eta bidegorria Portu Zaharraraino luzatuko du. Lanak uztailan hasiko dira eta 2007rako amaitzea espero dute. Bitartean, neurriak hartuko dira trafikoa bideratzeko.

**RENAULT** ocasión

## IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

**RENAULT**  
**BILBO BERRI**

Bilbo/ko. z/g - ALGORITA  
Tel: 94 430 88 81  
Jon Arráspide, 20 - DEUSTO  
Tel: 94 448 39 00

## Aranzadi

zientzi elkarteak aztertuko ditu **Galeko fortako** erroak

**Getxoko udalak** Aranzadi zientzi elkartearen esku utziko du Galeko fortaren aztarren azterketa eta ikerketa. Aranzadi irabazismo bako zientzi elkarte da eta Kultur eta Natur Ondarea ikertzea, ezagutzera ematea eta babestea ditu helburu. Hilabete pare batez aipatu elkartearen arkeologo talde batek oraindik gelditzen diren arrastoak arakatu, galdutakoak igari eta inguruaren garbiketa egingo du. Horrez gainera, zein gune mantendu behar den ere proposatuko du. Udalak 26.500 euro ordainduko ditu ikerketa gauzatzeko. Eusko Jaurlaritzak egindako eskaeraren ondorioz burutuko du Udalak ikerketa; izan ere, fortean hostalaritza jardueraren bat paratu baino lehen egin beharreko ekintza da. <sup>m</sup>

Galeko fortea oso egoera txarrean dago



## KULTUR, KIROL ETA GAZTE ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

Udalak kultur, kirol eta gazte zein haur elkarteentzako dirulaguntzak emateko epea zabaldu du. Kultur elkartearen artean 95.000 euro banatuko ditu, kirol taldeetan 370.000 euro eta gazte elkarteetara 28.000 euro bideratuko ditu. Gazteei zuzendutako laguntzen zenbatekoak aurreneko %5,6 egin du gora. Deialdiaren oinarriak Hiritarren Arretarako Bulegoan, [www.getxo.net](http://www.getxo.net) orrialdean, Gazte Zerbitzuan (Tangora Etxea, gazteen elkarteek bakarrik) eta Udaletxeko Erregistro Orokorrean lor daitezke. Kultur eta kirol elkarteek eskaera martxoaren 15a baino lehen aurkeztu behar dute, eta gazte elkarteentzako epea hilaren 31n itxiko da.

## Hobby&Art arte lantegia

“Margolaritza, zeramika, eskulanak eta umeen lantegiez gain, ikastaro bereziak dauzkagu”



Informazio gehiago: [www.hobbyandart.com](http://www.hobbyandart.com) edo 94 491 61 86

**Urritik daroa zabalik Aingeruen etorbideak Anboto kaleagaz izkina egiten duen kantoian (Algorta) Hobby&Art lantegiak. Pablo Baroja eta Paulina Sierra dira arte txoko honen buruak eta euren eskaintza haur eta helduentzako lantegiak eta ikastaroak dira.**

—Zer eskaintzen du Hobby&Art-ek?

—Gaztetik izan dugun ametsa izan da arte eskola lako gune bat sortzea. Beti maite izan dugu artea, berbarako, Pablo arte eskola askotan ibili da. Hobby&Art arte lantegia da, jendea ondo pasatuz ikastera etortzea da gure helburua. Gehienez 8 laguneko taldeak sortzen ditugu eta 4 lan esparrutan dihardugu: margolaritza, zeramika, eskulanak eta umeen artea. Haurrek (4-12 urte) aukera zabal daukate: beste arloetako jarduerak egin ditzakete. Helduentzako ez dago adin mugarik, badabil gurean 88 urteko ikasle bat eta oso trebea da. Gutxi gorabehera 100 bat lagun dabilta orain lantegietan. Eskolak, gutxienez, astean ordu eta erdiko saioak dira (hilean 45 euro, materialak barne). Baina astean egun gehiago bazatoz, edo gurasoek 2 seme-alabak bada-

kartzate merkeagoa da. Materialarena garrantzitsua da, izan ere, artea gogoko dugu baina badakigu materialengatik-eta garestia dela, horregatik abantaila eman diegu ikasleei materiala guk emanez.

—Eskola euskaraz egiteko aukera badago?

—Hala nahi izanez gero bai, irakasleak euskaraz badakielako. Bestalde, oporraldietan ere zabaltzen dugu: udan, Aste Santuan, etab. Adibidez, gurasoek lan egin behar badute eta umeak oporretan daudenean, jakin dezatela gurean eskaintza zabal dagoela. Osterantzean, norbait zalantzan badago, agian ez badaki lantegia gogoko izango duen, frogaskola (5 euro) egiteko aukera ematen diogu

## «Umeek eskolak euskaraz hartzeko aukera badaukate»

eta gero berak erabaki dezala, askok egin dute eta gehinak geratu egin dira.

—Ikastaro bereziak ere antolatzen dituzue?

—Bitxigintza, pachwork, graffiti, komikia... emango ditugu. Martxoan argazkilaritza digitaletako ikastaroa eta etorkizunerako literatur sormena, xakea, DJ... eskolak ematea da asmoa. <sup>m</sup>

## Martxoaren 8a Getxon

Emakumeen Nazioarteko Egunak mendetasun-egoeran daudenen zaintza dauka iturburu aurton



Olimpia o la pasion de existir antzerki laneko kideak

**Getxoko** kultur etxeak eta Udaleko Berdintasun arloko ekitaldi ugari antolatu dituzte, emakume elkarte laguntzagaz, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira: zineak, hitzaldiak, antzerkiak eta musikak lekua daukate aurtengo Getxoko Emakumeen Jardunaldietan. Zinemari dagokionez, batetik Cinema Paradisok *La Gallina Ciega* (Isabel Herguera) eta *Vera Drake* (Mike Leigh) filmak eskainiko ditu martxoaren 3an; bestetik, Zine-Klubak *La vida secreta de las palabras* (Isabel Coixet) pantailaratuko du hilaren 8an. Emakumeen Nazioarteko Eguna ekitaldiz beteta dator: goizean mural partehartzailea (Getxo Antzokiko plaza, 09:00) osatzeko deia luzatu dute, ostean lunch herrikoia emango

dute (San Nikolas, 14:00) eta Emakumeen Mundu Martxaren manifestua irakurriko dute. Bestalde, arratsaldean Bilboko elkarretaratzeagaz bat egiteko asmoa dute. Hurrengo egunean “Zainduak izateko pertsonen eskubi-dea: dependentziaren arretarako euskal sistema publikoaren alde” hitzaldia prestatu dute (Villamonteko kultur etxea, 19:00). Izan ere, aurreko mendetasun-egoeran dauden pertsonen zaintzan eta zaintzaileengan ipiniko dute arreta berezia Jardunaldiek. Bestalde, *Olimpia o la pasion de existir* koproduzio espainiar argentinarra egongo da ikusgai hilaren 12an (Getxo Antzokia, 19:00). Amaitzeko, Emakumeak Musikan jaialdiaz ere gozatzeko aukera egongo da (ikusi 43. orrialdea). <sup>m</sup>

## ALDI BEREKO ITZULPEN-ZERBITZUA ESKAINIKO DIE UDALAK TALDE ETA ELKARTEEI

Euskara Biziberritzeko Planean aurrerapausu berri bat eman du Udalak: aldi bereko itzulpen-zerbitzua eskainiko die alor ezberdinetako elkarte eta talde getxoztarrei. Lehiaketa publikora aterako du Udalak laster zerbitzua, eta jakinarazi dutenez zerbitzua barru aldean egiten diren ekimen handiei begirakoa izango da, hau da, 20-25 lagunetik gorako jardueretarako. Bide batez, eskaintza honetatik kanpo gelditzen dira jaiak, kanpo aldeko ekitaldiak eta egun bi baino gehiagokoak. Aldi bereko itzulpen zerbitzua Getxoko hurrengo taldeei zuzenduta egongo da: hezkuntza zentroak, haurtzandegiak, parrokiak, kultur eta kirol elkarteak...

## “OIHANA MUSIKA BILAKATU ZEN” KONTZERTU SOLIDARIOA HILAREN 10EAN

Alboan eta Taupadak GKEen ekimenez Boliviako San Ignacio de los Moxoseko Musika Eskolak kontzertua eskainiko du Getxon. Horrenbestez, “Oihana musika bilakatu zen” emanaldiaz gozatzeko aukera edukiko dute Getxo Antzokira hilaren 10ean arratsaldeko 7:00etan hurreratzat direnek. Edozelan ere, kontzertura joan gura duenak jakin dezala sarrerak gonbidapen bitartekoak direla.

## EGIZUK AURTEN ERE ESKI IKASTAROA ANTOLATU DU

Egizu programaren barruan euskarazko eski ikastaroa antolatu dute hilaren 10, 11 eta 12rako. Somporten (Jaka alboan) emango duten ikastaroa 7 urtetik gorako ume, gazte zein heldu euskaldunei zuzenduta dago. Bazkideentzat eta Berbalagun taldekoentzat 100 euroko prezioa dauka eta gainerakoentzat 125 eurokoa. Prezioaren barruan autobusa, egonaldia, 2 gosari, afari bat, forfaitak, 2 orduko ikastaroa eguneroko, ekipu osoaren alokairua eta aseguruia daude.

Informazio gehiago: 605 739 916

**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, beheko eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**VIEJO**

kopak eta giro jatorria

Alangobarrri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA



Sergio Lozano eta Jose Garcia > mendigoizaleak

“Egunero hotza, gosea eta nekea sufritu dugu, baina Aconcaguako tontorra zapaltzea ederra izan da”

**Ameriketako** hiru mendirik handienak igotzera abiatu ziren abenduaren 17an Jose Garcia eta Sergio Lozano leioztarrak. Hogeita hamabost egunen ostean Ojos del Salado (6.864m), Pisis (6.882m) eta Aconcagua (6.959m) mendi tontorrak zapalduak zituzten.

«Gailurretik jaistean jendea leher eginda igotzen ikusten duzunean harrotu egiten zara»

—Gorputza altuerara egokitzea da lehen urratsa...

—Quemaditotik Ojos del Salado mendiko kanpamenturantz abiatu ginen mandoen laguntzaz. Bidaia tarte hau gorputza altuerara moldatzeko aprobetxatu genuen, zortzi egun eman genituen eta 4.800 eta 5.500 metroko bi mendi igo genituen.

—Lehenengo tontorra eta lehenengo arazoak...

—(Jose) Bai. Kanpamentu nagusian beste bat eta biok oso txarto sentitu ginen. Organismoaren egokitze prozesuak ez zigun onik egin eta altuera gaitzak jota atzera egin behar izan genuen. Kasu horietan onena altuera galtzea da lehenbailehen. Hortik aurrera ederto berreskuratu eta ez genuen arazorik izan. Bigarren erroka: Pisis mendia.

Pisis mendiko Kanpamentu nagusia erabat hutsik zegoen. Bakardade sentsazio arraroa zen. Hiru egunetan lortu genuen mendi pun-



Sergio eta Jose Aconcaguako gailurrean

tara igotzea, baina tontorretik metro gutxi batzuetara geundelarik ekaitz bortitz batek ikaratu eta itzultzeko zalantzan egon ginen. Karga elektriko ikaragarria zeukan ekaitzak, buruko ileak zutitzen zitzaizkigun. Azkenean, sakabanatu eta gelditu arte itxoin genuen.

—Azkena, Ameriketako gaina.

—Aconcagua bi etapatan igo genuen. Dena oso ondo joan zen. Gorputza altuerara egokitu-ta dagoenez igoera aurreko bietan baino azkarrago egiten da. Tontorrean momentu gogoangarria. Badakizu dena amaitu dela, helburua lortu duzula. Jaitsieran egindakoaz hausnarketa egiten duzu; dena ondo atera da, ez dela egon

istripurik eta guztiak ondo gaude. Gainera, gailurretik jaistean jendea leher eginda igotzen ikusten duzunean harrotu egiten zara pixka bat.

—Zer izan da gogorrena?

—(Jose) Nire ustez gogorrena eguneroko kontuak ziren: eguna ibiltzen eman eta gero ura lortzeko izoztegi baten bila ibili beharra, bazkaria prestatu...

—(Sergio) Hotza, gosea eta nekea bidaide dituzu egunero. Gero, gogorra egin zitzaidan etxekoekin ezin hitz egitea. Hasierako hamazazpi egunetan, kokapenagatik, ez zegoen sakelako telefonoz deitzeko aukerarik. Deitu nahi duzu ondo zaudela esateko, baina ezin...

## Euskara integratzeko tresna

Michael Barona kubatarra euskara ikasten dabil Mastitxu Udal Euskaltegian



“Alabari etxeko lanak egiten laguntzeko ikasi nahi dut euskara”

**Michael Barona Puerto** jaiotzez kubatarra bada ere, bihotzez euskalduna da. “Ni hemengoa sentitzen naiz. Lankideek ikusten nautenean esaten dute: *begira hor dator euskalduna*”. 29 urteko leioztar hau maitasunak ekarri zuen gure artera, eta orain, alaba euskaraz berba egiten duenean harro sentitzen da. “Hemen dut emaztea eta hemen jaioa da nire alaba, herri honi guztiz errotuta nago”.

Urritik hasi zen Leioako Udal Euskaltegian euskara ikasten. Alde batetik, etxekoekin -emazteak eta alabak badakite- euskaraz berba egiteko. “Alabari etxeko lanak egiten laguntzeko ikasi nahi dut euskara”. Bestetik, oposizioetara aurkeztu nahi du eta horretara

rako ezinbestekoa omen da euskaraz jakitea. “Aspalditik ikusten nuen ikasi beharra eta aurtent eman dut lehenengo urratsa”.

Atzerritarra integratzeko euskara ikasi beharra aipatu digu. “Herri batera zoazenean bertako hizkuntza ikasi behar duzu, hori horrela da, gainera, herri honetan gero eta gehiago entzuten da euskara”. Hizkuntzak atsegin ditu eta ingelesarekin alderatuz, “zailagoa ikusten dut euskara”. Dena den gogoa eta kemena ez zaizkio falta, erai-kuntzan beharrean egin eta gero Mastitxu Euskaltegiara doa-eta bi orduz euskaraz murgiltzeko. Gogorra bada ere, euskara ikasi arte jarraituko duela ziurtatu digu. Eutsi Michael! m

## MARTXOAN WODY ALLEN ZINEGILEARI BURUZKO ZIKLOA EGINGO DA

Kultur Leioak martxoan Woddy Allen zinegileari eskainiko dio. Perseo Taldeak asteartero antolatzen duen Zine Forumean hil honetan zuzendari estatubatuarren *Un final made in Hollywood*, *Match Point*, *Annie Hall* eta *Manhattan* filmak pantailaratuko dituzte. Beraz, martxoan martitzenero Woddy Allenen umore bereziaz gozatzeko aukera paregabea edukiko dugu. Esan bezala, hitzordua, Kultur Leioa Auditorioan martitzenero 20:00etan (2 euro).

## EMAKUMEAREN ASTEA LEIOAN

Leioako Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatu duen Emakumearen Astearen baitan makina bat ekitaldi egingo dira. Martxoaren 7an pelikula emanaldia Arteako Zine Aretoetan: goizeko 11:00etan *A mi madre le gustan las mujeres* filma egongo da ikusgai. Martxoaren 8a ekitaldiz betea datorkigu: 12:00etan kontzentrazioa Boulebardean, gero bazkaria Artagan jatetxean eta amaitzeko arratsaldeko 19:30ean hitzaldia Kultur Leioan (“De mujer a mujer”). Hilaren 9an hitzaldia egingo da Errekaldeko Jubilatuen Etxean 18:00etan eta, ondoren, Idoia Somoza abeslariak kantaldia eskainiko du.

## EL FLORIDO PENSIL MARTXOAREN 10 ETA 11N

*El Florido Pensil* antzezlan arrakastatsua Leioara dator martxoaren 10 eta 11n. Frankismo garaiko ume talde baten istorioa kontatzen du obra honek. Istorio honetatik abiatuta urte haietako bidegabekeriak azaltzen dira. Hau guztia kutsu umoretsuan kontatua dago eta ikusleen irribarre eta algarak sortuko ditu, batez ere, frankismoa sufrututako ikusleengan. Emanaldiak martxoaren 10ean 20:00 eta 22:30etan eta 11an 20:00etan Kultu Leioako Auditorioan. Prezioa: 12 euro.

**ERROTULOAK**



Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

**ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta IMPRESIO DIGITALAK egiten ditugu**

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

**udondo**  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

Zure publizitatearen zure publizitatearen zure publizitatearen zure publizitatearen zure publizitatearen

94 491 13 37

# Udaltzaingoa 2005ean

**Tratu txarrak** zirela-eta, **ia 50 salaketa** bideratu zituen Udaltzaingoa iaz, 2004an baino 14 gehiago

**Zehazki** 48 salaketa bideratu zituen Udaltzaingoa iaz tratu txarrak zirela-eta, aurreko urtean baino 14 gehiago. Arrizen Monasterio Hiri Segurtasun zinegotziak adierazi zuenez igoera hori gaiaren inguruan gero eta informazio gehiago dagoelako eman da. Halaber, arrazoi hauengatik lau pertsona axilotu zituen Erandioko Udaltzaingoa 2005ean eta bat urruntze agindua ez bete-zeagatik.

Oraintsu plazaratu den eta Udaltzaingoa iazko jardueraren berri ematen duen txosten honek lan absentismoaren jaitsiera azpimarratu du: %11,6koa izan zen 2005ean; aurreko urtean, berriz, %17,6koa. Gainera, beheranzko joera honek segida ei dauka aurten. Hau dela eta, kalean polizia gehiago egon daitezke eta horrela azoketan dabiltzan karteristei hobeto aurre egin ahal izango ei zaie. Izan ere, ia 600 lapurreta salatu ziren iaz, aurreko urtean baino 100 gehiago. Arazo honi aurre egiteko, udaltzain arruntez gain kaletarrez jantzitako bost polizia dabilta herriko kaleak zaintzen.

Bestalde, eta trafiko kontuari dagokionez, lan dexente egin zuen garabiak, izan ere, 753 auto eroan zituen. Guztira, arauak ez betetzeagatik 4.101 isun ipini zituzten udaltzainek, eguneko 11 batz besterik. Erandion 144 trafiko istripu gertatu ziren 2005ean, gehienak arreta falta edo neglijentziagatik.



Udaltzain bi kalean beharrean

## Altzaga, auzorik gatazkatsuen

Salaketen erdia baino gehiago (%55) auzo honetan egin ziren, gehienak lapurretengatik. Hala ere, Segurtasun zinegotziak Erandio herri segurua dela adierazi zuen, lapurretak direla arazo larriena baina 24.000 biztanle dituen herri batean kopurua txikitat jo zuen. m

**«600 bat lapurreta egin ziren iaz Erandion, gehienak Altzagan»**

## 2006rako asmoak

- **Eskolara huts egitea.** Ikastetxeetako zuzendariekin eta hezitzailekin, eta Udaleko Giza Arloarekin elkarlanean, arazoari aurre egiteko ikerketa egin da. Martxoaren lehengo urratsak emateko asmoa dago.
- **Telealarmak.** Nagusientzako zerbitzu hau eguneratu eta abian ipini nahi da. Udaltzaingoa pertsona hauen senitartekoei euren etxeetan sartzeko baimena eskatu nahi die, zelan dauden jakin ahal izateko.

# Piano-jotzaileak

Erandioko Musika Eskolako pianista gazteek hartu zuten parte Andoaingo kultur etxean egin zen ekitaldian



Erandioko Musika Eskolako piano-jotzaile gazteak

**Joan den** otsailaren 11n, lehenbiziko piano jaialdia antolatu zuen Euskal Herriko Musika Elkarteak Andoaingo Bastero Kulturgunean eta hantxe egon ziren, besteak beste, Erandioko Musika Eskolako piano-jotzaile gazteak.

Guztira zazpi eta hamabost urte bitarteko 400 ikaslek hartu zuten parte ekitaldian, gehienak Gipuzkoakoak. Erandiotik, berriz, 18 ikasle joan ziren, 13 A mailakoak (zazpi eta hamabi bitartekoak) eta 5 B mailakoak (hamabi eta hamabost urte bitartekoak).

Ikasleek goiza eta arratsaldea eman zu-

ten Mozart, Chopin, Aita Donostia eta besteren lanak jotzen.

Hasiera batean "urduri" egon zirela onartu arren, Erandioko Musika Eskolako irakasleak pozik daude ikasleek egindako lanarekin eta datorren urtean errepikatzeko prest agertu dira; izan ere, interesgarria eta aberasgarria iruditu zaie beste eskolekin harremanetan jartzea.

Horrez gain, musikari gazteak ez ziren etxera esku hutsik etorri, topaketan pianoa jotzen parte hartzeagatik domina eskuratu zuten-eta. m

## 886 ETXEBIZITZA ERAIKI-KO DITUZTE ASTRABUDUAN ETA GOIKOAN

Urte biren buruan, 886 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du Berangoko Udaltzarak. Goikoa auzoan 492 etxe eraikiko dituzte, pribatuak zein babes ofizialekoak. Horretarako, hitzarmena sinatu dute Loiuako udalarekin eta, guztira, Ibañez de Betolaza zonaldean 125.270 metro koadro izango dituzte eraikinak egiteko. Astrabudian, berriz, beste 394 egingo dituzte, horietatik 231 babes ofizialekoak. Horretarako, 76.000 metro koadro erabiliko dira.

## EUSKARA IKASTAROAK ETORKINENTZAKO

Altzagako eta Astrabuduako euskaltegiek etorkinentzako euskara ikastaroak antolatuta dituzte. Udaleko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, euskararekin kontakturik izan ez duten etorkinei zuzenduta dago eta dagoeneko 24 pertsonak eman dute izena. Eskoletan oinarriko kontzeptuak landuko dituzte: agurrak, zenbakiak, familia, garraibideak eta eguneroko bizitzaren bestelako alderdiak. Izena ematen duenak 20 euro ordaindu beharko du, baina ikastaroa amaitzen duenari dirua itzuliko zaiola agindu dute Euskara Zerbitzuko arduradunek.

## TELMO ZARRA ATHLETICEKO JOKALARI OHIA HIL DA

Penaz hartu dute Athleticeko zaleek eta zaleak ez direnek Zarraren heriotza. Bat-batean joan zaie, zaigu, 85 urte zituela bihotzeko batek eraman zuen-eta atzo Ezkaraiko (Errioxa) bere etxean. Taldeko jokalaria maiteenetarikoa izan da Zarra, bere ibilbide profesionalean agertutako jarreragatik, Athletici bere bizitza eskaintzeagatik eta historiako jokalaria onenetarikoa izateagatik. Aurrelari indartsua eta errematatzaile aparta izanik, 200 gol baino gehiago sartu zituen 1921ean Asuan jaiotako gizasemeak.

**Arasa**  
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa  
Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

san inazio  
autoeskola  
1991n sortua  
LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak  
Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

moda gaztea opariak  
IRATI  
Torrene 2, ALGORTA  
T. : 94 491 12 71

**ARLAN**  
Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

## UME SAHARAUIEK UDA SOPELAN EMAN DEZATEN KANPAINA MARTXAN IPINI DU NUYUMEK

Aurten ere, Nuyum elkartearen bitartez ume saharauiek uda gurean eman dezaten kapaina abiarazi du Udalak. Sahara Mendebaldeko errefuxiatu kanpamentuetan egoera latzean eta larrian bizi diren 7-12 urte bitarteko umeak datorren udan etxean hartzeko asmoa daukaten sopoloztarrek dagoeneko zabalik daukate eskaria egiteko epea. Nuyum elkartera edota Udaleko Komunikazio sailera jotzea besterik ez dute.

Informazio gehiago: 94 406 55 00

## LARRABASTERRAKO METRO GELTOKIKO LANAK APIRILERAKO AMAITZEA ESPERO DUTE


Pasa den urteko urrian hasi ziren Larrabasterrako Metro geltokiko lanak: eskailera, kaiak eta sarrera babesteko estalkia ipintzea. Dagoeneko egitura jarrita dago eta altzairuzko eta korrosioa saihesteko beste material batzuk egindako estaldura jartzea gelditzen da. Arduradunek lanok apiril aldera amaituta egongo ei direla iragarri dute.

## ALDUNDIAK GOBELA ETA TORRE ERREKAK BERRESKURATUKO ETA BIRGAITUKO DITU

Bizkaiko Foru Aldundiko Lan Hidraulikoen Planaren helburua urte amaierarako Bizkaiko hiri hondakinen isuriketen %95 batzea eta araztea da. Horregaz batera, 500.000 euro bideratuko ditu Bizkaiko erreketako elementu biologikoak eta baldintza naturalak berreskuratzeko eta birgaitzeko. Hartara, egiteko horri Sopelan laster ekingo dio Aldundiak Gobela eta Torre erreketan, hain zuzen ere.

## Kurtzio kultur gune berria

2007ko udaberrirako zabalduko ditu ateak Iturrieta parkean eta 900.000 euroko aurrekontua dauka



Kultur gune berriak izango duen itxura

**Iturrieta parkean**, Zaldu inguruan, lekutuko dute Kurtzio kultur gune berria. Bi solairutako eraikina izango da, solairu bakoitza 800 metro koadrokoa. Teilatuan eguzki panelak ipiniko dituzte eta beharrezkoa den argindarraren erdia-edo horietatik lortzea espero dute. Proiektua osatu ostean, udaberri honetan iragarri dute lanen hasiera eta urtebete barru zabalduko ei ditu ateak kultur zentro berriak. Egitasmoak 900.000 euroko aurrekontua dauka eta Aldundiaren diru-languntza (%20) izango du Udalak.

Kurtzio kultur guneak hiru ikastegi edukiko dituela azaldu du Sopolako alkate

Imanol Garaik: "Helduen Hezkuntzako Ikastetxerako (HHI) 6-7 gela, Udal Euskalteginako beste horrenbeste, AEKrentzat baten bat, inakasleen batzar-aretoa...". Horrez gainera, 160 pertsonentzako aretoa ere egongo da 10 metroko sakonera edukiko duen oholtzagaz, "kontzertu txikiak, antzerkiak, hitzaldiak..." egiteko izango dela jakinarazi du Garaik. Gainerakoan, ume eta gazteen gunea ere bertara eroateko asmoa daukate.

Bestalde, Hirigintzako zinegotzi Ricardo Ibarak aurretatu duen legez, "eraikin berriak orain arteko enaikuntza hustea dakar, hori erantsi egingo dugu eta bertan lurrarazpiko aparkaleku bat egiteko asmoa daukagu". m

## Emakumeen kultur astea

Aste osoan zehar **ekitaldi andana** antolatuko ditu **Itzartu** elkarteak



Entzuleak iaz antolatutako ekitaldi batean

**Nazioarteak** martxoaren 8an egokitu zuen Emakumeen Eguna; han eta hemen hamaika ekimen antolatzen dira data horretan. Sopelan Itzartu emakumeen kultur elkarteak osatu du egitaraua eta hilaren 6tik 12ra arte ekitaldiz bete dute astea.

Egitarauari hasiera emateko astelehenean Toti Martinez de Lezea idazlea izango dute berbalagun. Gozogileek euren gaitasunak erakusteko aukera edukiko dute martitzenean, X. Tarta Lehiaketa prestatu dute eta; horrez gainera, saltsa erakusketa, tarten dasketa, sari banaketak eta dantzaldia egongo dira. Nazioarteko Emakumeen Egunerako *Kandelen argipean* andrazkoei buruzko ipuin kontaketa iragarri dute. Hurrengo egunean, lehiaketak izango dira nagusi: olerki, ipuin labur, mintzamen eta margolaritza arloetan egingo dira eta orduan banatuko dituzte sariak ere. Ostean, Lola Markaidak umore ikuskizuna eskainiko du eta luntx bat ere emango

dute. Barikuan Galatea taldearen *Alas de luna* errezitaldi musiko-poetikoagaz gozatzeko parada egongo da. 1.300 bazkide dituen elkarteak zaturako antolatu du bazkaria Artxandako jatetxe batean eta domekan elkarteak antzerki taldeak *Denok batean* lana antzetzuko du.

Ekitaldi guztiak (bazkaria izan ezik) Kultur Aretoan egingo dituzte. m

## Ekitaldi batzuk

- **Toti Martinez de Lezea.** Hitzaldia. Hilak 6, 18:30.
- **X. Tarta lehiaketa.** Hilak 7, 18:00.
- **Kandelen argipean.** Ipuin kontalaria, emakumeei buruzko ipuinak. Hilak 8, 18:30.
- **IX. Olerki eta VI. Ipuin laburren lehiaketak** Hilak 9, 18:00.
- **Alas de luna.** Galatea taldearen errezitaldia. Hilak 10, 18:30.
- **Denok batean.** Itzartu antzerki taldearen antzetzpena. Hilak 12, 18:30.



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

**aldizkaria etxean jaso nahi baduzu**



[uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

94 491 13 37

**HAINBAT KULTUR-EKITALDI ANTOLATU DITUZTE MARTXORAKO**

Berangoko kultur etxeak Emakume Langilearen Egunean emango dio hasiera datorren martxoko egitarauari "Hijas de su madre" bakarriketarekin (19:00). Martxoaren 10ean, berriz, Garbiñe Abendaño pianojoleak kontzertua eskainiko du eskolako jantokian (18:30). Hurrengo egunean, hilak 11, Patrimonio historico antzezlan ikusteko aukera eskainiko du Kultur Etxeak (18:00). Bestalde, familien barnean sortzen diren gatazkak konpontzeko jardunaldietan izena eman nahi duenak martxoaren 9a baino lehen egin beharko du.

**ZUBEROAKO MASKARADA ETA ZANPANTZARRAK BERANGON**

Martxoaren 5ean, domekan, Simon Otxandategi Dantza Taldeak ohiko kalejira eskainiko du eta, aurren, Zuberoako Maskarada antzeztuko dute. Horrez gain, Zantantzarrak Berangoko kaleak beteko dituzte. Ibilbidea Lantzarte auzoan hasiko da 11:15ean eta, Angxane zein Karabigane auzoetatik igaro ondoren, Sabino Arana kalean amaituko da 13:15ean. Bertan, euskal dantzen emanaldia eskainiko du taldeak. Euria egonez gero, ekitaldia pilotalekuan izango da.



**Tokiko Agenda 21** osatze aldera Diagnostikoa egin dute, Ekintza-plana dator ostean



Herritarrek iritzia edo proposamenak bidal ditzakete: 94 668 00 08 edo [ingurumena@berango.org](mailto:ingurumena@berango.org)

**Berangoko udalak** eman ditu dagoeneko Tokiko Agenda 21 (TA21) programa osatzeko lehenengo pausak: udalerriaren egoeraren azterketa eta diagnostikoa egin dute.

TA21 garapen iraunkorra bultzatzeko programak 3 oinarri dauzka: ingurumena (poluzio akustiko eta atmosferikoa...), gizartea (zerbitzuak, immigrazioa, etxebizitza, kultura, kirola, hezkuntza...) eta ekonomia (lana, hirigintza, garnaio bideak...). Diagnostikoa eratzeko herri-inkesta egin zuten eta 100dik gora erantzun jaso zituzten. Hortik ondorioztatutako udalerriaren alde onak dira, besteak beste, behar-tsuentzat laguntza-programak, kulturguneen kopurua, osasun instalazioen zerbitzua, etab.

Ostera, hobetu beharrekoen artean hurrengoak daude: kirol-instalazioen beharra, errepide eta industrialdeko zarata, etxebizitza, udalerri-rako erabakiak hartzean herritarren parte-hartze falta... Orain emaitzak udal teknikarien mahaiak aztertuko ditu eta konponbideak proposatu. Proposamenak herritarren foro edo eztabaidagunera eroango dira, heritar guztiak parte har dezakete horietan. Bertan adostutakoak edo proposatutakoak eta teknikarien iritzia kon-tuan hartuko dituzte udal agintariek gero, eta egin beharrekoak erabakiko dituzte. Horrela, erabakiak osatzen joango da Ekintza-plana, eta urte amaiera baino lehenago onartuta edukitzea espero dute. m

**Kasino Aurrera elkarte anonimoa**  
Aurrera elkarteak **udarako gune berria prest** edukitzea espero du



Plentziako Aurrera Kasinoaren (erdi aldean) antzinako argazkia

**1893an** sortu zuten 52 akziodunek Aurrera elkarte anonimoa. Plentzian kasino edo aisialdirako topagune bat lekutzeko eraikina altxatzea zuten helburu. Eta bete zuten: Aurrera Kasinoa zabaldu zuten. Astillero pasealekua eta eskolen bitartean dagoen eraikina 39.390 pezetako kostua eduki zuen, orube erosteak 1.095 eta 9.515 altzariek eta gainerakoek. Hala, orain dela mende bat baino gehiago sortutako elkarteak bizirik dirau; dena dela, eraikineko eurentzako guneak noiz konpontzen amaitu zain daude berriro zerbitzuak eskaintzeko.

Izan ere, Kasinoaren eraikina zaharberri-tu eta hotela paratu dute bertan. Edozelan ere, Aurrerakoek euren txoko eta guneak izaten jarraituko dute eraikuntza berean, baina, esan legez, lanak amaitu arte itxoin beharko dute. Aspaldian Aurrerako akziodun eta presidente den Ramon Frances Ecnarrok azaldu duenez, "udaberrirako lanari ekiteko prest egongo ginela uste genuen, baina... udarako

zabalik egotea espero dugu; sotoan 125 metro koadroko gunea daukagu eta lehenengo solairuan egongo dira tabernatik hurbil txoko bat kafetxoa edo dena delakoa hartzeko; beste gune bat eguneroko informazioagaz (prentsa, aldizkari, irratia, telebista handia partidak ikusteko), jokoaren txokoa (karta, xake...); eta azkenik terraza". Aurrerako mila bat akzioak 400 akziodunen artean banatuta daude eta berri-

**«Ohiko zerbitzuez gain, hitzaldi eta ikastaroak antolatzeke asmoa dute»**

ro zerbitzuak eskaintzen hasten direnean baliteke bazkide berrientzako aukera zabal-tzea, edota abonatu berriei lekua egitea. "Elkarte plural eta gehienek gustukoa izan gura dugu", adierazi du Francesek. Horrenbestez, ohiko zerbitzuez gainera ikastaroak eta hitzaldiak antolatzeke asmoa aztertuko dute: kirol, kultura, gizarte, gastronomia eta abarren guneak. m



**TXIBERRI edantokia**  
*frontoi partikularra*

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15




URDULIZ

Telefono: 946 761 128

Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91


MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

[basalbobaserria@yahoo.com](mailto:basalbobaserria@yahoo.com)

**cianoplan Reprografía**  
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antigua Golf - Getxo  
Tf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- enmarkaketak



## MATRAKO MENDI MARTXA MARTXOAREN 5EAN

Matrakoren lagunek eta ibilaldiaren antolatzaileek jakinarazi dutenez Matrako Mendi Martxa hilaren 5ean egingo dute. Goizeko 11:00etan Astondon ipini dute irteera eta hortik Armintzaraino ibilbidea prestatu dute aurten ere. Poteoaren ostean ohiko legez herri bazkaria prestatuko dute eta bertan parte hartu gura dutenek Meñaka fruitudendan (Plentzia) edo Pararenean (Gorliz) eman dezakete izena.

## HAUR LUDOTEKA ZABALIK ASTE SANTURA ARTE

Gorlizko kultur etxeak 5-12 urte bitarteko umeentzako ludoteka antolatu du. Martitzen eta barikuetan egingo da 17:30etik 19:00etara erabilera anitzeko aretoan. Ludotekan eskainiko diren jardueren artean berbarako, makilaje lantegia, margolaritza eta jolas tradizionalak daude. Haur ludotekak Aste Santura arte izango ditu zabalik ateak.

## EMAKUMEEN JARDUNALDIAK GORLIZEN

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko asmoz hainbat ekimen antolatu dituzte Gorlizen. Hiru hitzaldi iragarri dituzte: "Zer da estresa eta zerk eragiten du" (hilak 3, 19:00), "Erlaxazio teknikak" (hilak 6, 19:00) eta "Estresaren autokontrola" (hilak 8, 19:30). Jarduera guztiok Eloisa Artaza kaleko Udal Erakusgelan egingo direla azaldu dute Kultur Etxetik.

## GORLIZ

### Gazte planaren Ekintza-plana onartu du Udalak



Gazteen arazo handienetakoa da etxebizitza

**Urte pasatxo** joan da Udalak Gazte Plana martxan ipini zuenetik. Fase edo aro desberdinak pasa ditu: hasierako diagnostikoa, eztabaida mahaiak, behin betiko diagnostikoa... eta guztietatik ondorioztaturako erabakiak osatu dute Ekintza Plana. Bertan zehaztu dira jarraitu beharreko ildoak, bete beharreko hutsuneak eta horiek gauzatzeko bideak. Orain hori guztia abiatzea dator, eta horren berri ematea eta hedatzea. Bost ataletan banatzen da Plana: enplegua eta lan merkaturako sarbidea, hezkuntza eta prestakun-

tza, etxebizitza, osasuna eta gizarte ekintza, eta azkenik, aisialdia eta kultura. Garatuko diren ekintzen artean aipagarrienak hauek dira: enplegua sortzeko eta mantentzeko politika koordinatuak bultzatu (abantail fiskalak, kontratazioarako edo autoenplegurako dirulaguntzak ekainiz); etxebizitza eskuratzeko bideak sustatu (adb. alokairu sozialeko eskaintza publikoaren bitartez); bizitza osasungarri baterako ohiturak aragotu; edota euskara bultzatu kirol, kultur eta aisialdiko jardueretan. m

# Mar. 5-19

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

- ▶ **Carmen Marinen olioak.** Algortako kultur etxea. Martxoak 6-18.
- ▶ **Juan Andres Garaizabalen marrazki, luma eta ur koloreak.** Erromoko kultur etxea. Martxoaren 15era arte.
- ▶ **Rafa Villaren kubismo eta futurismo lanak.** Erromoko kultur etxea. Martxoak 17-29.

### LEIOA

- ▶ **Egin ezazu guztia gizatiarrago. Vicente Ferrer Fundazioa.** Kultur Leioa. Martxoaren 26ra arte.

### PLENTZIA

- ▶ **Gorane Oleagaren olio lanak.** Goñi Portal Kulturala. Martxoaren 15era arte.

## ZINEMA

### GETXO

- ▶ **Hegalariak.** Euskarazko Haur Zinea. Getxo Antzokia. Martxoak 5, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2 euro.
- ▶ **La vida secreta de las palabras.** Zine-Kluba. Emakumeen Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Martxoak 8, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.
- ▶ **Flores Rotas.** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Martxoak 10, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.
- ▶ **Sevigne.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Martxoak 15, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.
- ▶ **Arcadia.** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Martxoak 17, barikua. 22:00.
- ▶ **Charlie y la fabrica de chocolate.**



▶ Perseo zineforuma, Leioa

### Woody Allenen gaineko zikloa martxoan

Leioako Perseo zineforumak Woody Allen zuzentzaileari eskainiko dio martxoko zine zikloa. Hileko martitzen bakoitzean Manhattaneko zuzendari handiaren film bana emango dute. Lehenengo bi martitzenetakoa gaztelaraz emango dira eta azkenengo bietan azpitoludun jatorrizko bertsioan. Hauek dira pantailaratuko dituzten pelikulak: *Un final made in Hollywood* (hilak 7), *Match Point* (hilak 14), *Annie Hall* (hilak 21) eta *Manhattan* (hilak 28). Zineforumeko sarrerek, ohiko legez, 2 euro balio dute eta 20:00etan hasiko dira emanaldiak.

• **Non:** Kultur Leioa • **Noiz:** hileko lau martitzenetan • **Ordua:** 20:00

Haur Zinea. Getxo Antzokia. Martxoak 19, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.  
▶ **El tren de la memoria.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Martxoak 22, eguaztena. 19:30.

### LEIOA

- ▶ **Las cronicas de Narnia.** Haur zinea. Kultur Leioa. Martxoak 5, domeka. 12:00 eta 17:00.
- ▶ **Una historia de violencia.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Martxoak 18 (19:00 eta 22:00), 19 eta 20 (20:00). Sarrera: 4 euro.
- ▶ **Rolo eta Ilarraren sekretua.**

Euskarazko Haur zinea. Kultur Leioa. Martxoak 19, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.

### PLENTZIA

- ▶ **Al caer la noche.** Helduen zinea. Goñi Portal Kulturala. Martxoak 10, barikua. 22:15.
- ▶ **Espias super secretos.** Gazte zinea. Goñi Portal Kulturala. Martxoak 11, zapatua. 18:00.
- ▶ **La memoria de los muertos.** Helduen zinea. Goñi Portal Kulturala. Martxoak 17, barikua. 22:15.
- ▶ **Tokyo godfathers.** Haur zinea.

Goñi Portal Kulturala. Martxoak 18, zapatua. 18:00.

## IKUSKIZUNAK

### GETXO

- ▶ **La razon blindada.** Malayerba (Ekuador) taldea. Getxo Antzokia. Martxoak 11, zapatua. 20:00.
- ▶ **Olimpia o la pasion de existir.** Emakumeen Jardunaldien barruan. Armar Artes Escenicas (Argentina) eta Sorambulas taldeak. Getxo Antzokia. Martxoak 12, domeka. 19:00.
- ▶ **Joan Isaac.** Kantautore katalana. Getxo Antzokia. Martxoak 18, zapatua. 20:00.

### GORLIZ

- ▶ **Peio Añorga ipuin kontalaria.** Ikastetxea. Martxoak 18, zapatua. 18:30.

### LEIOA

- ▶ **El florido pensil.** Tanttaka taldea. Kultur Leioa. Martxoak 10 (20:00 eta 22:30) eta 11 (20:00).
- ▶ **Hitzak patriketan.** Hankatxo taldea, euskaraz. Kultur Leioa. Martxoak 12, domeka. 20:00. Sarrera: 2 euro.
- ▶ **Consuelo.** Dantza Zirkuitua. Teresa Nieto Danza taldea. Kultur Leioa. Martxoak 16, eguena. 20:00. Abonua: 10 euro (4 ikuskizun).
- ▶ **Babia.** Dantza Zirkuitua. Ertza-Asier Zabaleta taldea. Kultur Leioa. Martxoak 23, eguena. 20:00.
- ▶ **Four Friends "Bilbop".** Blues-Jazz Zirkuitua. Kultur Leioa. Martxoak 17, barikua. 22:00.

### BARRIKA

- ▶ **Marsel magoa.** Haur ikuskizuna. Udaletxea. Martxoak 18, zapatua. 11:30

### BERANGO

- ▶ **Hijas de su madre.** Emakumeen Jardunaldien barruan. Kultur Etxea. Martxoak 8, eguaztena. 19:00.
- ▶ **Patrimonio Historico.** Emakumeen Jardunaldien barruan. Kultur Etxea. Martxoak 11, zapatua. 18:00.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

**VASA**  
20<sup>o</sup> ANIVERSARIO  
URTEURRENA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@euskalnet.net](mailto:vasa@euskalnet.net)



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

[albuma]



## Zakar ontziak

Zaborra, zarama, zakarra... Guztiok edukitzen dugu beti aldean gugandik urritaratu, aldendu, gura izaten dugun hondakinen bat, behar ez dugun gauzaren bat... Inork gura ez dituen gauza hauek zakarrontziek baino ez dituzte maite. Edukiontzi eskuzabal hauen bila atera gara kalera eta, pertsonok bezala, oso desberdinak direla ohartu gara.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



26 UK



UK27



## Aratusteak

Leioako Alzaga ikastolako pasillotan eskegita aurkitu genuen argazki polit eta adierazgarri hau. Ez dugu egilea nor den jakiterik izan. Orain dela 20 bat urte ikastolan ospatu zituzten inauterietan mutilen komuneko giroa ederto erakusten du.

LEIOA, 90EKO HAMARKADA

[berbetan]

Zarauztarra izanagatik ere, Joseba Iriondo Azpeitian jaio zen, 1969an. Jose Mari Iriondo kazetari ezagunaren semea da, eta horrek, antza, bera ere kazetari izateko eragin zion. Txikitan, Azpeitiko ikastolara joaten zenean, alboan zeukan Loiola Herri Irratia, eta hantxe egoten zen aita beharrean. Giro horretan hazi zen Iriondo, handik urte batzuetara Euskal Herriko kazetaririk ezagunenetakoa bihurtu zen gizona. *Gaur Egun* albistegiaren aurkezlea da orain, baina sona handiagoa eduki zuten Bagdadetik bidali zizkigun kronikek. Afganistanen egon zen lehenago, eta Madrilen are lehenago hainbat urtez. Zalantzarik ez da ordea, Iriondori Irakeko gerrak utzi diola ariman arrasto gehien; horietako asko *Palestina Hotela* liburuan jaurti zituen, eta han topatuko ditu interesa daukanak. Horrez gain, Irakekoaz hamaika hitzaldi emon ditu dagoeneko, nazkatzeraino ia (bera, ez entzuleak). Eta geuk ere, parkatu Joseba, bide horretatik jo dugu ezinbestean, kirolzaletasunaren gaineko itaun xume batzukaz gudurako eremua prestatu ostean.

# Joseba Iriondo

## Gerra zauriak

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Azpeitian jaio eta han bizi izan zinen hamabi urte bete arte, baina zeure burua zarauztartzat aldarrikatzen duzu...

—Bai. Hala ere, Azpeitiko euskara erabiltzen dut, hori da gure etxeko euskara.

—Kirolari petoa zara. Besteak beste, Zarauzko surf eskola eta taldeko sortzaileetakoa zaitugu...

—Neu izan nintzen Kantauri itsaso osoan lehena surf klaseak ematen. Aspal-diko kontuak dira! (Barre).

—Orain Getxon bizi zara. Zer dela-eta etorri zinen Bizkaira?

—Madriletik itzuli eta gurasoen etxera joan nintzen, Zarautzera. Hamabost egunerako nentorrela esan nuen, eta bi urte gelditu nintzen. Baina Madrilen egon ondoren Zarautz txiki samarra egiten zitzaidan. Hemen ere jendea ezagutzen nuenez, hona etorri nitzen. Bilbo inguruan nahi nuen, baina ez Bilbon. Herri kutsua zeukan zerbait nahi nuen, eta Getxo perfektua iruditu zitzaidan.

—Itsaso-minak ere edukiko zuen zerikusirik, edo surf-minak, zehatzago...

—Bai, bai, ezin izango nintzateke Bilbon bizi, itsasotik hain urruti, gertuagoko zerbait nahi nuen.

—Eta surfean segitzen duzu?

—Aurten *Iron Man* bat egin nahirik nabil, eta momentuz surf ez egitea erabaki dut, horretan buru-belarri nabilelako,

### “Bonbardaketa bat ezagutzeko zortea ez dauka kazetari askok”

baina bestela bai, ahal dudan guztietan.

—Gai potoloagoetara joko dugu. Ez dakit gerra-korrespontsaltzat aurkeztu zaitzakedan...

—Berriemaile berezia hobe.

—Eta zein da gerra-korrespontsal eta berriemaile bereziaren arteko aldea?


—Gerra-korrespontsalik ez dakit dagoen; guk gerra eta pake korrespontsalak garelako esaten dugu. Gerra-korrespontsal hitzak

badauka halako kutsu erromantikoa, gaur egun lanbideak ez duena, eta beraz berriemaile berezia hobea da, askotan gerra ez den lekuetara ere joaten garelako.

—Eta zelan ailegatu zinen horretara?

—Kasualitatez. Nire ametsetako bat zen, eta karreran nengoela, behin, oso gerra-korrespontsal ezaguna etorri zitzaigun. Hark esan zigun gerretara kazetari one-

nak besterik ez direla joaten. “Orduan ni ez”, pentsatu nuen. Baina hori ez da egia. Nirea kasualitatea izan zen: lan bat egiten ari nintzen eta nire nagusiak norbait behar zuten Afganistanera joateko, Dorre Bikiena gertatu eta gutxira. Ez zuen inor aurkitzen, eta aurrez aurre entzun nion hori esaten. Nire ametsa zen eta nire parea pasatzen ikusita... esan nion ni gustura joango nintzatekeela. Bera harrituta





gelditu zen, ez zekielako halako grinarik nuenik ere.

—**Horrenbestez, maletak prestatu eta ospa... Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula hori!**

—Gauza kuriosoa izan zen gainera, garai hartan hasia nintzelako iluntzeko *Gaur Egun* aurkezten, eta dena utzi nuen, nahiago izan nuelako bestea egin, nahiz eta hura ere —zerbait aurkeztea— nire ametsetakoa bat zen. Baina ez dauka zerikusirik, eta ez naiz batere damutzen.

—**Afganistanen zazpi bider egon zara, baina benetako sona Iraken gerran egindakoak eduki zuen, jendeak horregatik gogoratzen zaitu. Axola dizu?**

—Ez, inondik inora. Gainera, niretzat hori... esperientzia daukatenean esaten dute gure gerra bautismoa izan zela. Ziurrenik bai. Bonbardaketa bat ezagutu genuen eta kazetari askok ez dauka horrelako zor-terik.

—**“Zortetik”?!**

—Bai, bai, zortea da. Horrela esanda hotz samar gelditzen da: “Honek ez al dauka bihotzik, edo zer?”. Baina profesionalki zortea da hori ezagutzea, eta pertsona bezala ere bai, benetan gogorra delako.

—**Munduaz, bizitzaz... daukazun ikuspegia aldarazten dizulako, adibidez?**

—Adibidez. Baina horrek esplikazio luzea ere badauka. Badirudi halako leku batean, han bizitakoekin, betirako aldaturko zarela, baina egia esan hona itzulita lehengora itzultzen zara berriro, oso azkar. Nik beti adibide bera jartzen dut: kotxea eroste. Handik itzuli eta hilabete batera banenbilen berriz ere kotxea erosi nahirik. Egia esanda ez dut oraindik erosi baina... Gizarte hau anker samarra da, beti kontsumismora eramaten gaitu, baina hango bizipenak esperientziak betiko aldatzen zaituela zalantzarik ez da.

—**Liburu bat idaztera ere eroan zaitu. Barruak hustu beharra-edo?**

—Bai. Azken batean, albistegietako lana (gehienbat telebistan) nahiko arina da, axalekoa, eta gauza batzuk esaten dituzu, baina beste asko esan gabe gelditzen dira,

ez daukazulako denborarik, esan beharrekoak gehienez bi minututan bota behar dira eta. Gainera, nik han gaizki pasatu nuen, besteak beste lagun bat galdu nuelako. Etortzean, liburu idaztea terapia modukoa izan zen nire depresioak gainditzeko. Eta baneukan jakinmina ea liburu bat idazteko gai izango ote nintzen.

—**Bonbardaketa bertatik bertara duzuela, zelan egiten zaio aurre beldurrari?**

—Egia esango dizut: beldur handiagoa

## “Kazetari gehienok ez genuen batere lan inpartzialik egin Iraken”

izan dut Madrilan, Las Rosillasi buruzko erreportajea egiten, Bagdaden baino. Bagdaden ez nuen benetako beldurra izan, bestela guztiz noraezan ibiliko nintzatekeen, eta ez, ni eta inguruko inork ez genuen halakorik sentitu. Handik ihes egiteko modurik ez dagoenez, zeure buruari sinestarazten diozu zu ez zarela bomba horien helburua zuri ez zaizula egokitu, hoteletik 200 metrora erori arren. Autodefentsa mekanismoa da, guztiok egingo genukeena. Jendeak uste du heroiak garela. Ez da hala, edozeinek egingo luke gauza bera.

—**Etxera itzulitakoan dator izan zitekeenaren beldurra, beharbada?**

—Orduan beheraldia dator. Ni bi astez

## “Kazetariak gezur askoren garraiatzaileak gara, guk jakin gabe”

egon nintzen, ez dizut esango edanari emana, baina batzuetan... Han ere, batzutan halako talde-terapia egiten genuen eta kristoren mozkorak harrapatzen genituen, eta negar egiten genuen. Bota beharra genuen.

—**Bide batez, zelakoa da itzulera?**

—Konturatzen zara nolako eragina izan duen hangoak, nolako bedurra pasatu duten zure etxeok, ingurukoek. Ohartu egiten nintzen aireportura iritsi eta bat-

batean jefe guztiak ikustean, txistulari eta guzti. “Baina hau zer da?”, pentsatu nuen. Zer esanik ez hurrengo goizean lehendakariak berak deitu zidanean.

—**Bagdaden egon zineten kazetariak zer jarrera hartu zenuen gerrarenganako?**

—Begira, Afganistanen nengoenean bonbardaketak gogorak izan ziren, baina ulergarri egiten zitzaidan, alegia, banekien norbaitek Dorre Bikiei eraso egin ziela, haren erantzule nagusia ezkatututa

zeukatela talibanek, eta talibanak agintean zeudenez... Bueno, esplikazioa bazuen, behintzat, bonbardaketa hark, nahiz eta gero, eraginak ikustean, zibilak ere hil dituztela ohartzen zarenean, oso latza izan. Baina Iraken, nik eta gehientsuenok geneuzkan datuen arabera, ez zegoen arma debekaturik ez arraiorik... Eta gehienok, nik uste, ez genuen batere lan inpartzialik egin Iraken. Gainera, bagenekien hemengo gizartea gerraren kontra zegoela, eta jendeak harrera ona egiten ziola esaten genuenari. Erabat informazio partziala izan zen, eta gainera uste dut partziala izan behar zela.

—**Lankide baten hilketak partzialtasun hori areagotu zuen?**

—Gehienbat AEBen aurkako jarrera areagotu zuen. Handik joan nintzanean, estatubatuar soldaduei kristorenak esanez joan nintzen. Gero, AEBetan izan naiz eta konturatu naiz denetako jendea dagoela. AEBen aurkako jarrera baino, Bushen aurkakoa da.

—**Bagdaden kazetari guztiak alkarregaz ibiltzen zineten, talde trinkoa osatzen zenuen, edo jatorriek eta ideologiek banatu egiten zintuzteten?**

—Ideologiak nabaritzen dira, bai. Gure hotelean ABCko bat zegoen, eta harekin izaten genituen sesioak. Gero, Radio Nacionalekoak ere bazeuden... Baina leku horietan, salbuespenak salbuespen, ideologiak erabat lausotzen dira, eta profesionalak daude, onak edo okerragoak.

—**Zu han eroso ibiliko zinela pentsatzen dut, zure pentsamoldearekin barne-gatazka handirik barik. Baina beste askorentzat ez zen hain gozua izango...**

—Nik ez dut ia inor ikusi gezurretan. Pertsona bakarra: Angela Rodicio, TVEkoa. Baina hori oso berezia da. Beste asko, berriz, egoera deserosoan zeuden. Radio Nacionalekoak Aznarren gobernuaren menpe zeuden, eta hala ere lan duina egin zuten. Copeko Miguel Azpiroz ere benetan ausarta izan zen, eta beste batzuk... Haiek ez zekiten etxera itzultzean lana edukiko zuten oraindik ala kale

gorrian egongo ziren. Antena 3eko bat bota egin zuten hona etortzean, berak ikusten zuena esaten zuelako.

—**Zentsura handia dago orduan...**

—Ez, baina zuk badakizu zure komunikabideak nahi duena ez esateak eragina edukiko duela agian...

—**Eta gauzak ezkatutzen dira, hau da, autozentsura egiten duzue?**

—Bai, asko.

—**Zertan?**

—Autozentsura baino gehiago, esango nuke adierazpen askatasunak dituen mugak ondo zaintzen direla. Gauza bat da ankerkeriak erakustea, eta beste bat morboa elikatzea. Batzuetan, irudi bat hurbiletik erakustea ez du informazio gehiago ematen; horretan Joserra Plaza, nirekin zebilen kameralaria, oso tipo bikaina da.

—**Hori irudiei dagokienez. Informazio aldetik?**

—Tira, Irakeko gobernuaren zentsura handia zegoen. Behin eta berriz esan dut: norbait entzun diot esaten, inoiz gatazka bati buruz eman den informaziorik zehatzena eman zela Iraken. Bada, hura bada zehatzena, besteak zer izango ote dira? Mundu guztia zegoen Bagdaderi begira, guk hori bagenekien, baina zipitzik ez genekien benetan gertatzen ari zenaz. Ez guk eta ez inork. Ikusten genuena baino ez genekien. Horrelako lekuetan kazetariaren testigantzak dauka indarra, baina makroinformazioa eta gerra nondik nora doan-eta... Horiek ez dira sinestu behar, guztia gezurra izaten delako, eta gu izaten gara gezur horien garraiatzaileak. Hori da lanbide honen gauzarik tamalgarriena: zenbat gezurren garraiatzaile bihurtzen garen, guk jakin gabe.

—**Eta zoezer jakin eta isildu?**

—Ez, halakorik ez. m

aldizkaria **etxean**  
jaso nahi baduzu


HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
Kalea & zenb.....Herria.....  
e-mail.....Telefonoa.....

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



ARTEAGA (GETXO), 1973


## Etxean egindakoak

Han hemenka ibiltzen gara beti argazki berri eta zaharren bila; herrian galdezka, lagunei gurasoen argazki albumak arakatzeko eskatzen... Getxoko Udal Liburutegiko argazkien artxibora sarritan jo dugu eta han aldizkari honetan argitaratu ditugun irudi eder asko aurkitu izan ditugu, oraingoan orrialde hauetara ekarri ditugunak kasu. 1970eko hamarkadan etxean egindako argazki panoramiko hauek Getxoko bazterrak jasotzen dituzte. Irudi hauen gainean, Juan Domingo Etxebarria izeneko gizon batek Kultur Etxearen esku utzi zituela baino ez dakigu. Guri sano gustatu zaizkigu.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**



SAN INAZO (NEGURI), 1973



AZKORRI INGURUA (GETXO), 1973



AXERROTA (GETXO), 1974




HIRUTASUN ELIZAKO KANPANDORRETIK (GETXO), 1975



JAUREGI BASERRI (GETXO), 1973



ALANGOKO UR BILTEGIA (ALGORTA)



PORTU ZAHARREKO IGERILEKUAK (ALGORTA), 1973

## zineeskola

Oskar Fernandez

## Ikuspegi soziologikoa

Zutabetxo honetan behin baino gehiagotan film bat azterterakoan zein motatako iritziak kontuan har genitzakeen aipatu dugu. Oraingo honetan askotan kontuan hartzen ez den irizpide batez ariko gara, ikuspegi soziologikoa hain zuzen ere. Beraz, has gaituzen honi buruz oso garrantzitsuak diren bi gauza arakatzeko. Lehenengoa kokapen kronologikoa datza. Jakin behar genuke ikusitako filma noiz grabatu zuten, garatzen duen istorioa gizakiaren historian non dagoen eta, azkenean, zein urtetan ikusten dugun filma.

Bigarrenak, oster, lotura handia du lehenengoarekin eta filmaren zuzendariarekin hitz egingo bagenu bezala, zergatik aukeratu duen gai hori galdetu behar genuke. Galdera honek garrantzi handia du beti, funtsezkoa dela esango genuke. Jakina, galdera ez da hutsetik sortu behar istorio bat pantailaratzekoan baizik, zuzendariak bere aurrean aukera zabala eta desberdina izango du eta, printzipioz, multzo ugari horretatik edozein gai aukera lezake. Beraz, aurretik aukeraturako gaia berarentzako oso erakargarria dela suposatu behar genuke. Aukera horretatik ikusleak begirada zorrotz bat atera dezake filma azterterakoan. Orain kontura gaituzke gai batzuen aurrean, film batzuen aurrean alegia, ezin izango genukeela iritzi bera izan filma noiz grabatu zuten kontuan hartzen ez baldin badugu. Ezin dugu ahaztu zinema ez dela artea eta ikusizuna soilik, hedabide sozial eta politikoa ere bada, eta askotan pentsatzen duguna baino askoz garrantzitsuagoa. Zinema edozein adierazpen artistikoa bezalaxe egoera soziopolitikoak oso mugaturik dago. 4

## Euskarazko film laburrak

**Topaguneak** antolatzen duen Zirkuitua dela-eta martxoaren 21ean ipini dute hitzordua Erandion

**Topagunea** Euskara Elkartearen Federazioak martxan ipini du dagoeneko III. Euskarazko Film Laburren Zirkuitua. Bost filmek osatzen dute aurten kartela, eta Hego Euskal Herriko 20 herritan antolatu dituzte emanaldiak, martxoaren 2tik hasi eta apirilaren 12ra bitartean. Topagunetik azaldu dutenez, *“Federazioko kide diren Euskara Elkartearen beste ekimen kultural bat da Zirkuitua, berriek hartzen dute tokian tokiko antolaketa lan guztia, euren herri eta auzoetako euskarazko dinamika kulturala eta, ondorioz, euskararen beraren sustapena”*.

Bizkaian, barbarako, Destuan, Durangon, Areatzan, Basaurin eta Santutxun prestatu dituzte antolatzaileek emanaldiak. Eskualdean Erandion da, momentuz, Zirkuituak bisitatuko duen herri bakarra. Hala, Berbots euskara elkarte erandioztarrak martxoaren 21ean, martitzena (20:00), Josu Murueta kultur etxean ipini du zita.

**«Txotx, 40 ezetz, Sarabe, Haragia eta Hauspo soinu dira emango diren filmak»**

Aurreko bi edizioetan Zirkuiturako filmak Eusko Jaurlaritzaren Kimuak egitaspora aurkeztutako artean aukeratu zituzten. Alabaina, Topagunetik jakinarazi dute-




Zikloa iragartzen duen kartela

nez, aurten ez da euskarazko lanik aurkeztu Kimuak egitaspora, eta horregatik, 1998-2000 bitarteko 5 filmek osatuko dute Zirkuituko eskaintza: *Txotx* eta *40 Ezetz* (Asier Altuna eta Telmo Esnal), *Sarabe* (Beatriz de la Vega), *Haragia* (Begoña Vicario), eta *Hauspo soinu* (Inaz Fernandez).

Bestalde, emanaldi gehien ostean bertaritzen diren ikusleek zuzendariren batezaz berbaldua egiteko aukera izango dutela iragarri dute. m

## Ez galdu &gt; Arcadia

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: martxoaren 17an, barikua • Ordua: 22:00 • Cinema Paradiso



Costa-Gavras Greziako zuzendari ospetsuak zuzendu du film hau baita gidioia idatzi ere. Errealizadore honek egindako film batzuk ikusleek beginietan behin betiko iltzaturik gelditu dira. Hauen aipa ditzakegu: *Z* (1969), *Estado de sitio* (1972) edota *Desaparecido* (1981). Eta bere aurreko filma *Amen* izan zen.

Oraingo honetan zuzendari garrantzitsu honek, bere hirurogeita hamabi urterekin, arlo guztietan oso interesgarria den istorioa pantailaratu du. Bruno Davertek, enpresa bateko goi karguak, bat-batean bere burua kale gorrian ikusten du eta berarekin batera gainerako behargin guztiak langabezia gelditzen dira. Baina Brunok duen esperientziarekin, ezagupenekin eta dituen ikasketekin berehala lana topatuko duelakoan dago, errealitate latza eta gordinak bere itxaropenak ilundu dugu.

## Andrazkoen musika sorkuntza

Emakumeak Musikan jaialdiak **hiru kontzertu eta erakusketa bat** hartuko ditu bere baitan



Hilaren 11n Iñaki Lagosek (biolina) eta Arkaitz Mendozak (pianoa) emanaldia eskainiko dute Andres Isasin

**VI. Emakumeak Musikan** jaialdia da Getxoko Emakumeen Jardunaldien barruan ekimen aipagarrienetako bat. Aurten Kultur Etxeak Mujeres en la Musica elkartearen bidez prestatu duen egitaraua hiru kontzertuz eta “Emakumeen Historia Musikan” erakusketaz osatuko da.

Erakusketa argazkiz eta historiako idazkiz eraturako 36 panelek osatzen dute eta Villamonteko kultugunean zehar barreiatuta egongo dira ikusgai hilaren lehenengotik azkenengora arte. Jaialdia antolatzeaz arduratzen den Kultur Etxeko Marta Herrerak azaldu duen le-

gez, *“argazki eta testuen bidez musikaren historia emakumeen begietatik ikusia eta emana azaldu nahi da; emakumezko kompositoreak edo musikagileak historian zehar...”*. Bestalde, hiru musika emanaldi antolatu dituzte Andres Isasi Musika Eskolan (19:30) eta Herrerak zehaztu modura, *“obren egileak, musikagileak, dauka garrantzia eta ez musikariak, emakumeek sortuak lanak izango dira joko dituzten guztiak”*. Hilaren 11n Iñaki Lagosen (biolina) eta Arkaitz Mendozaren (pianoa) esku joango da emaldia; hilaren 18an Rene Morak (gitarra) jardungo du; eta azken kontzertua, hilak 25, Iruñeko ganbara-orkestrak eskainiko du. m

## diskoak

**Walkabout**  
Najwa  
Dro



Elektronika eta soinu akustikoak nahastu ditu Najwa Nimri polifazetikoak bere bakarkako hirugarren disko honetan (aurretik *Carefully* eta *Mayday* plazaratu zituen). London Session Orkestrarekin bibolinak grabatu ditu, Victor Iniestarekin (El bicho taldekoa) kitarra akustikoak, frantsesezko kanta bat sartu du... Sorpresa asko dakartzan disko honek. Zuzeneakoan kantak aldatu eta dantzagarriak egin nahi dituela aurreratu du Najwak.

**Techari**  
Ojos de brujo  
Diquela Records



Jazz eta hip-hop doinuak entzun daitezke Bartzelonako taldearen azken lan honetan. Baina ez hauek bakarrik: Kubako bata doinuak, Londreseko *asian-ground*, Dakarreko rapa, Pepe Habichuelaren flamenkoa, Martirio eta bere semea, Raul Rodríguez... Mestizajea deitzen den horren adierazle aipagarri eta duina da Ojos de brujo taldearen azken disko hau. Aurkezpen ederra eta CD-Roma ere badakar *Techari*.

**La vida te da**  
Amparanoia  
Pias



Disko berriarekin (bosgarrena) atzera datorkigu Amparanoia, hainbatek gero imitatu duten estilo berezi horren aitzindaria. Karibera begira dago oraingoan eta Kubako sona eta beste erritmo tropikal batzuk (reggae, ska...) ikutu flamenko eta urbanoeekin nahastuz disko ederra lortu du. Ohiko legez letrak eduki sozialez eta *carpe diem* aldarrikatzen duten mezuz beterik datoz. Martxoan aurkezpen bira hasiko da.

## Jaialdiak &gt; Sagarrondotik'06



Sagarrondoak heldu dio laugarren urtez sagarrari, eta martxoko hirugarren aste-akabuan (hilak 17, 18 eta 19) egongo da dastagai.

“Sagardoaren Lurraldeko” (Usurbil, Astigarraga, Hernani eta Urnieta) herritarrek osatzen duten Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak (SKSE) jorrotuta dauka dagoeneko Hernanin Sagarrondotik jaialdirako soloa. Barikuan THC, Sorkun, Loquillo y los trogloditas, Chambao eta O’funk’illok berotuko dute lurra. Zapatuan Morodo & raking soldiers, Berritxarrak, Celtas Cortos, Living Colours eta Betagarri astintuko dute arbola. Azkenik, domekan sagardoaren eta herri kirol lehiaren eguna antolatu dute Urnietan. Eguneko sarrerak 24 euro balio du (21 euro aurretik) eta 2 eguneko bonoak 36 euro.

Informazio gehiago:  
[www.sagarrondotik.com](http://www.sagarrondotik.com)

## Elkar &gt; udaberrirako sei

Sei dira udaberrirako Elkar diskoetxeak merkaturatuko dituen diskoak: lehenengoa Iker Goenaga trikitilariaren *Amorrua* izango da. Ostean, Kupela erromeriako taldearen *Bizi zaitez bizi* kaleratuko dute. Hil amaierarako egongo da salgai Juan Carlos Perezen *Hiriko istorioak* laugarren lana. Apirilaren Sugan taldeak pop kutsuko estreineko lana aurkeztuko du, eta ordurako ere *The Pub Ibiltaria 10* prest edukiko du Oskorrik. Amaitzeko, Juan Mari Beltranek maiatzean argitaratuko du *Orhiko xoria* diskoa.

etorri  
eta  
ikus!!

**ORIXA**  
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algortia

**Bihotz Handi**  
Getxoko odol emaleak

**Odola emateko egunak**  
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza  
**martxoak 13**

Areetako anbulatorioa  
**martxoak 14**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389

94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

[liburuak]

## Kama Sutra euskalduna

**Xirika** astekariak sexu posizioen marrazkiakaz eta testuakaz **liburua** osatu du

**Munduko** ohaide guztiei ezaguna zaien maitasun erotikoren gida hindua, Kama Sutra, sanskritoaz idatzi zuen Vatsyayana Mallanagak III. mende aldera. Mendebaldeak 1883an ezagutu zituen haren sekretuak (moral viktoriarrek lanbrotuta) Richard F. Burtonen itzulpenaren eskutik. 2000an *Euskal Kama Sutra* argitaratu zuten Gatuzain-ekoek: Itxaro Borda, Antton Luku eta Mattin Irigoien idazleen narrazio luze bana eta Asisko Urmeneta eta Marko Armspachen marrazkiak batzen zituen. Baina zerbait falta zen. Behingoz, pasa den

### “Yves Matxikoteren (IF) marrazkiak euskarazko azalpenakaz”

urte amaieran argitaratu zuen Xirikak *Itzulipurdika: xirri partiden irudimenerako gida askea* sexu jarreraren marrazkiakaz eta horiek azaltzeko euskarazko testuakaz osatutako liburua. Plazaratzen hasi zenetik, astero-astero, gazteentzako kazetak *Itzulipurdika* sexu posturen atalean xirri egiteko proposamenak ematen ditu; orain artekoak bilduta osatu dute gida (15 euro). Yves Matxikote (IF) marrazkilararen irudiak dira, eta “*euskara bizi eta gaztean*” azalpen-testu bana dakarte. “*Jatorrizko Kamasutra-*



Non eskura daiteke, salmenta puntuen zerrenda:  
[www.xirika.com/itzulipurdika\\_nun.html](http://www.xirika.com/itzulipurdika_nun.html)

*ren sexu atalak 5.000 postura proposatzen ditu, horien artean asko deklinazio anitz dira. 5000etatik urrun bagara ere, irudimenerako lehen gida honek pistak eman ditu”, azaldu dute egileek. Xirri festarako gida honetan heterossexual, homossexual, bakarti, bikote zein taldeek badute bere lekua. Eta euren aldarrikapena da: “*Norberaren sexua, sexualitatea eta pertsona bera begirunez hartzeaz gain, xirria ere euskaraz egin daitekeen eta egin behar dugun bizitzako jolasa da; benaz, gaueroko milaka akelarretxoak bizi bitez, aske eta euskaraz!*”.*

liburuak



**Sua nahi, Mr. Churchill?**  
Koldo Izagirre  
Susa

Itsasoaz eta hura inguratzen duenaz hitz egiten du idazleak bere azken narrazio liburuan. Gerra Zibilak toki garrantzitsua betetzen du, baina gaiarekin zerikusirik ez duten ipuinak ere ageri dira. Ohikoa da bere lanetan narrazioa kronologikoa ez izatea eta ugariak dira elipsiak eta plano aldaketak.



**Azken hanka falta zuen**  
Lutxo Egia  
Susa

Istoria bi kontaktzen ditu liburuak. Lehenengoak Bilboko itsasadarra du gunetzat eta hileta batekin hasten da. Bigarrenak, aldiz, Galiziako parajeetara eramaten gaitu. Kontakizun biak erlaziozatu, industrializazioaren eta toki idillikoen arteko kontrastea erakusten digu idazleak.

[kirola]

**Jabi Sagasti** > korrikolaria

“Maratoia bala bat bezalakoa da: ez du balak berak hiltzen, abiadurak baino”



Eskualdeko korrikolari aipagarrien artean Borja Jimenez eta Jose Lopez Pepe dauka Sagastik

**Maratoiaren** gainean jardutea otu zaigu oraingoan baina, pausatuta, eta lasterketa luzea barrutik ezagutzeko Jabi Sagasti algortarri alboratu gatzazkio.

Futbola utzi eta kirola egiten jarraitzeagatik hasi zen Sagasti korrika egiten. “*Apurka giro horretan barneratzen zara, fase desberdinak bizitzen dituzu: marka batzuk betetzen dituzula ikusi eta gehiago nahi duzu, gehiago prestatzen zara... profesionalen maila duzu jomuga, baina zeozergatik dira haiek profesionalak; beste betebeharnak, lana-eta, dauzkazu zuk, ez dauzkazu euren baliabideak eta zainketa*”. Bartzuetan kirolariak gaixo-poertaera hartzen dutela onartu du: “*Gogoan dut buruan korrika bakarrik neukan garaia; oso enakargaria da zure mugak bilatzen ibiltzea, baina askotan itsutu egiten zaitu horrek; ez nuke berriro horrela jokatu, baina gehienok igarotzen gana aro horretatik; zure lekua edo muga zein den ikasten duzunean konturatzen zara egindako gehiegikeriez; zure mugak bilatu bai baina aurkitzerakoan onartu egin behar dituzula uste dut*”. Ez dakusa maratoia jarduera gogorregi edota epi-

ko legez, “*ez dauka ezer berezirik, erronka da, desafioa; bala bat bezala da: ez du balak berak hiltzen abiadurak baino. Nik egunero maratoi bat korritu dezaket eta ondo egon; ostera, muturrean bazabiltza, bai, gogorragoa da*”. Alabaina, orain pausua apur bat lasaitu duela aitortu du: “*40 urte barru elkarrizketa-gaia 80 urtegezagindako maratoia izatea nahiko nuke; gorpuztza kotzeko txasisa lakoa da: km kopuru bat dauka eta horiek arinegi betetzen badituzu...*”. Hala ere, Iroman bat egiteko asmoa duela dio,

### «Zure mugak bilatzea bai, baina aurkitzerakoan onartu behar dituzula uste dut»

umiltasunez, baina: “*Ez dut oso gogoko horrela-ko ekitaldiez pelikularik egitea, hau da, ez nuke New Yorkeko maratoia sekula korrituko, pelikula handiegia dela uste dut*”. Bestalde, Bartzelona92 Olinpiar Jokoetako maratoian parte hartu zuen Sagastik “*parte hartzearen bakarrik, eta beno 2:59:59an egin nuen; marka onena Bilbon bete nuen 2 ordu eta 36 min*”.

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kirol moda**



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPON-  
SERVITEC



& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



Sarrikobaso 15

**Jesus Mari Gabiña** > Leioako Sahararen Aldeko Elkarteko kidea

“Sahararekiko elkartasunak herriaren onarpena dauka, baina ez dago oso zabalduta”



Jesus Mari Gabiña Shararen aldeko ekintzailea

**Orain dela zortzi urte, Leioako bost lagunek Sahararekiko elkartasun talde bat sortu zuten. Gaur egun, zazpi kide dira. Bizitzea egokitu zaigun garaiak ez dira, antza, elkartasunerako garairik onenak, inkestetan denak alde agertuko diren arren. Hala ere, lanean dihardu Fath elkarteak. Arabieraz “Iortutako helburua” esan gura du -gitxi gorabehera- berba horrek. Jesus Mari Gabiña sortzaileetako batez egon gara barriketan.**

—Uribe Kostan orain gitxi sortu da Sahararen aldeko laugarren taldea. Herrialde horrekiko elkartasuna handiagoa da beste eskualde batzuetan baino?

—Lau elkarte egon arren, ez gara hainbeste jende. Elkarte bakoitzean 25 lagun egongo balitz! Gehiago izan beharko ginatkeela pentsatzen dut, egia esan.

—Bai, baina emoten du inguru honetan gehiago maite dugula Sahara egoera txarrean dagozan beste herrialde batzuk baino...

—Beharbada, erakunde publikoek umeak

hartzeko antolatutako kanpainen bultzatu dute elkarteak sortzea. Leioan hala izan zen behintzat. Bestela, nik ez dakit zergatik dugun elkartasun handiagoa Saharagaz, baina hala da. Hango egoera beste herrialde batzuetakoa baino hurbilagoa zaigu, beharbada.

—Zortzi urte dira Fath jaino zela. Denbora horretan, gora egin du elkartasunak?

—Hara, udan umeak hartzeko taldeak sortzen da, eta abar, baina... Sahararekiko elkartasunak herriaren onarpena dauka, baina ez dago oso zabalduta. Leioan, 30.000

inguru biztanle egonda, gatxa da udan umeak hartuko dituzten zortzi familia topatzea. Eboluziorik handiena talde arteko elkarlanean ikusten dut nik. Lehen, herriarteko taldeak euren kasa zebiltzan; nik neuk ez nuen ezagutzen ez Arabakorik, ez Gipuzkoakorik... bizkaitarrik ere gitxi. Orain Euskadi mailan antolatuta gara, eta indarrak batu ditugu hainbat gauza egiteko.

—Orain dela gitxi Saharara bidali duzuen elkartasun-karabana, berbarako...

—Bai, 45 ibilgailu, 300 tona janari eta materialagaz.

### «Ez dakit zergatik dugun elkartasun handiagoa Saharagaz, baina hala da»

—Martxoan gagoz. Hurrengo udakoa prestatzen zabilzate dagoeneko?

—Oraindik orain amaitu dugu elkartasun-karabana antolatzen, eta horrek sano lanpetuta eduki gaitu. Baina bai, hasi egin behar da udakoa prestatzen, Polisariok martxo amaierarako jakin gura izaten du-eta zenbat ume etorriko den. Hala ere, udako kanpaina ez da karabana antolatzea bezain gatxa.

—Zer egoeratan dagoz Saharako errefuxiatuak, orain aste batzuetako uholdeak eta gero?

—Bada, egoera latzean. Hainbat eraikin jausi dira: ospitalak, eskolak, haurtzaindegia... Besterik ez zuten behar!

—Horrek ahalegin handiagoa eskatzen dizue?

—Egia esan, jazo denak gaintu egiten du gurea bezalako elkarleen gaitasuna... Dena dela, espero dut kanpoko laguntza nahikoa izango dela. NBEk eta EBk ezin dute jendea beste barik hiltzen utzi. Laguntza beste urtenbiderik ez daukate oraingoa. m

## Esakere > “Adabuk bai baia ondo imintte, artes”



Irudia: Gorka Vazquez

Kategori! Edozein modun edo edozen faltan egonta bere, kategori! Askok Bilbo eta ingiruko danon ganen esaten dauden gauze da, umiltasun handienagaz ibilteko modun gauzenen bere, ez garala kapaz gure harrokeritxu albo batera itxiteko. Lata huts bat eskun hartu behar badogu, kontuz, ixen daitela caviar late ahal bada, eta adabukez ibili behar badogu, ba ibiliko gara, baia kontuz, adabuk bere ez edozelakok: txarrenan egonta bere, kategori! Halantzekok ete gara?

Esakeratxu hau Iñaki Gamindek baturiko da, eta beran “Urdulizeko berbak eta bizimodu” liburun topako dozue.

## Gure berbakere 72

### ZELAN ESAN

#### Jakite eta ez jakiten ingiruko kontuk

Azkeneko Zelan Esan-en (Berkakere 68) emoniko edo eskatuko informaziñon kontuk ikusi genduzen, eta horregaz batera esan aditze zelan jokatuten dan. Sarri erabilten dogun beste aditz bet hartuko dogu Berkakere honetarako: jakin [yakin] aditze.

Testua: **Xabi Bilbao**

#### Jakin aditze orain aldin

*dakit, dakik/ñe, daki, dakiu, dakixu, dakixue, dakie, dakitez, dakixek/na, dakiz, dakiuz, dakixuz, dakixuez, dakiez*

Askok preguntako dozue “eta zelan da lehen aldin?”. Ba kontu da gure eskualdeko euskeran ez direzela aditz trinkok (*esan, jakin, eron, ekarri, ibilli, jon, etorri,...*) lehen aldin jokatuten. Lehen aldiko kontuk esateko, beste aditz guztikez egiten dan modun, aditze ta laguntzaille, biek, erabilten direz honekaz aditzekaz:

(orain) *dakit* -> (lehen) *yakiten nendun*

(orain) *diño* -> (lehen) *esaten eun*

(orain) *dekozu* -> (lehen) *aukiten zendun*, eta abar

#### Adibide batzuk

—Perretxiko *danak dakiz* horrek, baia gero *esztaki* ber (behar) dan lez *preparaten*.


—Buruz *dakiuz* Rolling Stonesen *kantu gúztik*, ta *gánera Mick Jaggerren arpegi iminten* bere bai!

—Txakurrek bere *bádakie non sartu* trumoiak yo ezkeron.

—*Diño* noz edo noz *txapeldúnek íxengo gárala*, baia nik *esztáit, ezstáit* (eztakit)...!

—Beharra *zelan íñ eztaki* ta *dákiñe da diruk zelan* gasta, horitxe *májo daki*.

—*Bébiek erátziten* eta *tómaten páluk iminten bakixu* (badakizu) bai, baia *óndiño* asko *fálta datzu báserritarra íxeteko*.



## Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

## GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA





gaizka escudero / basalbokoia

## Itsaski krema

**H**asteko ipini sutan oliba oliotan berakatzu laminetan zatitua. Berakatzu urrezatu baino lehen, barazkiak ondo txikituak gehituko ditugu: tipula, azenarioa eta porrua. Ondo bigundu arte su ahulean eduki. Gero tomatea (azal barik) bota. Apur bat egin. Ondoren ganbak edota eskura daukagun mariskoa, buruak eta azal eta guzti, gehitu eta eragin. Koñakarekin flanbeatu hau dena, arrain salda gehitu (arrain saldarik ez badaukagu saltzen dituzten pastilla horietako bat erabil daiteke) eta sutan eduki 15 bat minutuz. Txinotik edota irabiagailutik pasatu guztia. Platera txirla eta lebatz puska batzuekin lagun daiteke. Hauek kreman bertan egosi. On egin! <sup>m</sup>

### osagaiak

3 berakatz ale • 2 tipula • 2 azenario • 2 porru • 2 tomate • arrain salda  
300 gramo ganba • koñaka



itsaso arana / jolastokikoa

## Cavernet sauvignon

**M**ahats baltz hau izugarri estimatzen dute ardaozaileek. Frantzia du jatorria eta Burdeoseko ardao baltz gogoangarrien lehengaia da. Esan behar da berezkoak dituen ezaugarriengatik, ardao onduak edo kiantzazkoak egiteko primerakoa dela. Pikota kolore iluna dauka, aldakorra landatzen den eskualdearen arabera. Tanino indartsuak dauzka eta sudurrean bioleta lorearen aromak. Jatorria Frantzia daukan arren beste leku askotara oso ondo egokitu da, eta esaterako, Nafarroan, Penedesen edota Ribera de Dueron ardaoak egiten dituzte *cavernet sauvignonekin*. Errioxan modu esperimentalean baino ez dute landatu, izan ere, Errioxako jatorrizko izendapenak ez du mahats mota hau onartzen. Euskaldunontzako oso erraza da caverneta igartzea, sudurrean ondo ezagutzen dugun piper berdearen usaina ematen du eta. <sup>m</sup>



## Algortako Barbarella

Amezti kaleko klasiko bat



Argazkian, Santi Fincias lankide batekin

**Askok eta askok** gogoan daukagu lehengo Barbarella hura. Orain dela 33 urte zabaldu zituen atea eta garai hartan oso taberna modernoa zen; ispiluak, metala... Gutxiak jakingo duzue tabernaren izenaren jatorria. Barbarella komiki baten pertsonaia zen, gero Jane Fondak protagonizatu zuen izen bereko film bat ere egin zen, 1967an. Hau guztia gaur egun tabernaren jabea den Santi Finciasek kontatu digu. *"Nire aitak zabaldu zuen lehenengoz lokala, gero beste esku batzuetatik pasatu zen eta orain dela zazpi urte ni hasi nintzen hemen beharrean"*.

Eguneko edozein ordutan joateko lekua da Barbarella. Goizeko zazpitan zabalitzen dute eta gaueko hamaiketan itxi (asteburue-

tan hirurretan). Kafea ederto prestatzen dute, herriko onenetakoa da han egiten dutena. Barra, Santiren amak eta anaiak prestatzen dituzten pintxo landuez ondo omittua egoten da beti. Txipiroiak tipulagaz, basurde burua... mokadu tentagarri asko. Baina hauen guztien artean, makailu tortillazkoa nabarmentzen da. Proba ezazue, ikaragarria da! Ardoen eskaintzan ere ahalegin handia egiten du Santik eta oso karta zabala dauka; derigorrezko Errioxez gain, estatu zein atzerriko makina bat ardo dasta daitezke han.

Esandakoa, edozein ordutan joateko taberna da Barbarella. <sup>m</sup>

**BARBARELA**  
Euskal Herria, 2 - Algorta

**gOZOLABEA**

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**KONTXI**

**ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztarietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**8 NAZIOARTEKO EMAKUMEEN EGUNA**

**DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES**

ZABAZTEK BEHARTAN  
EGOKIA EGIN

AURKIDA OAZ EL BARRERIN  
BARRERAN ZABAZTEK  
AVAZKORREKIN HAZTEK EL BARRERIN  
EGOKIA EGIN

PERSONA BEHARTAN  
ELARRIN BARRERAN ZABAZTEK  
AVAZKORREKIN HAZTEK EL BARRERIN  
EGOKIA EGIN

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**

**ezagutzen al duzu?**

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE **Usategi** ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROI PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

## BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

## GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

aldizkaria  
etxean jaso  
nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]

### URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Zapaldu balazta! Gelditu (beharrezkoa baldin bada) denbora. Jesar zaitzez geltokian. Aspaldian egunerokotasunari ihes egin ezinik zabilta, korrika, lasterka, galapan... baina bidea egin barik. Astindu gogo eta hausnartu ia horrela jarraitu gura duzun.

### AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Oraindik ez al zara konturatu teila batzuk falta zaizkiola! Zorohaizea nondik jo hura hari begira beti! Den bezalakoa onartu, lagun modura babestu, adiskide legez maitatu... eta dioenaren erdia sinetsi... ezin duzu besterik egin!

### GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Hegoak ebakitzen badizkiozu, ez du alde egingo, baina... badakizu zer pasatuko den gero. Hego bako txoria gura baduzu hartu artaziak, oster, josi itzazu zuretzako hegala eta haizeagaz olgatu. Orratza ala artazia, zein eskuratu?

### META

t



(Irailak 17 urriak 16)  
Eguzkiak ez zaitu berotuko ezta bihar ere, baina lasai: gertu dauka negu gorriak amaiera. Liliak jaiotzerako ziur egon hobeto sentituko zarela, gauzak egiteko gogoak biziki sortuko zaizkizula eta zergatik ez zortea izango duzu bizilagun!

### OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Pergutada ederrean sartu zinen bere erruagatik; gainera aurpegia ateratzen duzu bere alde! Ez daukazu erremediarik! Jausten ikasten dela ibiltzen dio esarak, baina zuk gorputz osoko hezur denak apurtuko dituzu ikasi baino lehen.

### HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Dena beltz ikusten duzunean, egun guztiak astelehena direnean, aurpegi oro muturututa dakusazunean... jantzi iribarrea, abestu bihotzari, eta lurperatu dolu-aldia. Gatxa dela? Bai, baina ez ezinezkoa. Negarrez jarraitu baino, zergatik ez ahalegindu?

### LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Sanblas haria ipini zenuen samaren inguruan, baina ezer gitxirako balio izan ditu. Badakigu oso fededuna ez zarela eta kordelari mirakulurik erregutzen ez diozula. Alabiana, aizu, eramaten dituzun eskote horientzat kordela ez da erremedio nahikorik!

### HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)  
Betibelu hori! Dagoeneko nazkatu dituzu lagunak beti leku eta hizordu guztietara berandu heltzeagatik. Badakigu beti lasai eta urduri ipini barik bizi izan den horietakoa zarela, baina behingoatik izan errespetu apur bat lagunekiko!

### ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Egun osoa pipatuta zaudela ematen du, edozelako tontakeria eta irtenaldirik gatz bakoeneri ere egiten diozu barre... Badakigu errealtateak ez duela barreguririk ematen, baina 24 orduak ke artean ematea ez da osasuntsua!

### EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Ze pozik ibili zaren inauterietan morrozoa erantsi barik, e? Zu zeu izateaz lotsatzen zara ala? Egia esan, mozorrotuta zaudenean erakusten duzu zure benetako izaera eta horrek egiten zaitu zoriontsu. Agian lagunek ere mozorroagaz maitago zaituzte!

### IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Ondo ala txarto, bikain ala gitxiegi... Nahikoa egin baduzu egon lasai! Ahaztu bolada baterako nerbio-dantzak, txuletak, burua sutan egondako orduak, galdera ulerkaizak... Datorrena datorrela ere lau bat hilabete barru arte ezin izango duzu konpondu-eta!

### NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Azkenaldian koadrila aspertu samar ikusten duzula-eta kezaka zabilta, bada horrek konponbide erraza dauka, ala ez? Zinema, mendia, hondartzan pala zein boleibol partida, bazkaritxoak ezagutzen ez duzen herriren batean, sagardotegi garaia ere bada...



KEKO

## mungia

oKINDEgia

Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



denborapasa


LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Ipuin idazlea. 2. Oinarria. Kontsonantea. 3. Eramangaitz. 4. Musika nota. Aukera, egokiera. 5. Suge handia. Iparretarrak erakundearen siglak. Oxigenoaren ikurra. Sufrearen ikurra. 6. Bat. Bazegoen. Egile atzizkia. 7. Dei egin. ... jarri, bat etorri. 8. Amore eman. Ate hitz elkarketan. Kontsonantea. 9. Baldosa txiki beiratu. Dauka. 10. Atzizkia. Sorterria.

Goitik behera

1. Itzubideak, ihes egiteko bideak. 2. Ipar., apustu. 48 ordu barru. 3. Oinarrizko edaria. Ohar, gaztigu. 4. Sendo, tinko. Hunoen errege hura, Erromaraino iritsi zena. 5. Zuri, noa. Europar Batasuna. 6. Gipuz., ginatete. Gorputz ondoez. 7. Emakume izena. Natura, hitz elkartetan. 8. Italiako eskualdea. Dago. Kontsonantea. 9. Bokala. Jupiterren satelitea. Lotan. 501. 10. Hats bahi.



Soluzioak



asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Gipuzkoako semea
- Arte plastikoak ditu lanbide
- Mikel Laboaren diskoen azalak berarenak dira guztiak

> Aurrekoaren erantzuna: Anne Igarburu

> Irabazlea: **Bego Lezamiz (Asua) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



• Freexkue liburua

www.argia.com



PEDRO MENDIBIL BILBAOK UTZITAKO ARGAZKIA

Ereaga futbol taldea, 1944

**Orain dela** 60 urte baino gehiago ateratako argazki eder hau ekarri digu erredakziora Pedro Mendibilek. Garai hartan berak 19 urte baino ez zituen, gaur egun 80 ondo beteak dauzka, baina hala ere bizi-bizirik gordetzen ditu gogoan orduko kontuak.

Gerra osteko urte haietan Bizkaiko eskolen arteko txapelketa jokatzen zen eta 1944ko txapelketa Academia Algorta eskola ordezkatzan zuen Ereaga futbol taldeak irabazi zuen. Goiko argazkia, txapeldun izan eta gero Bilboko Misericordia ikastetxearen aurka San Mames futbol zelaian jokatu zuten partidaren 1944ko San Fermin egunean atera zuten. m

**Zutunik:** Anton Sopelana (GB), Nikola Abando (GB), Serapio Lauzurika (GB), Carmelo Moragues (GB), Josel Luis Lopez Uralde, Pedro Atejada.

**Makurtuta:** Pedro Mendibil, Jose Manuel Agirre, Roman Rivas (GB), Javier Rivero (GB), Jose Ignacio Salaberri (GB).



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

DAVID BARBERO > ETB2ko Forum saioko aurkezlea

## “Nire lanean nahiko zorrotza naiz”

Testua: Oiane Moran



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Langilea eta saiatua.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

*Good night and good luck* filmeko protagonistekin, kazetariak izanik, identifikatuta sentitu naiz.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Pentsatu beharko nuke... Agian, Gandhi.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Oso gozozalea naiz. Gozokiak eta pastelxoak tentazio izugarria dira niretzat.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Asteburuetan denbora izugarria ematen dut ohean, itzartuta egon arren.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

New Yorkera eta Istanbulera bueltatuko nintzateke.

**Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**

Egia esateko, nire lanean nahiko zorrotza naiz.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Zorionsua izatea eta familiarekin denbora gehiago ematea, batez ere, jaio berri den ilobarekin.

**Lo egiteko ezer janzen al duzu?**

Pijama.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Inguruz nauten pertsonak gabe. Batez ere, nire emaztea behar dut aurrera egiteko.

**Musika talde bat?**

Azken urteetan opera deskubritu dut eta izugarri atsegin dut.

**Zein da ikusi duzun azken filma?**

*Good night and good luck* eta *Brokeback Mountain*.

Oso interesgarriak dira biak.

**Eta irakurri duzun azken liburua ?**

*Dama eta lehoia*, Claudia Casanovarena, nire saioan elkarrizketatuko baitut.

**LABURREAN**— Kazetaria izateaz gain, Unibertsitate Konplutentsean Filosofia eta Letretan lizentziatua da David Barbero. Telebistan aurpegirik ezagunenetakoa dugu, baina inguru guztietara moldatzen den profesionala dela esan dezakegu; izan ere, kazetaritza, antzerkigintza eta irakaskuntza dira bere bizitza profesionalean jorratu dituen esparruak. Egun, Euskal Telebistan lan egiteaz gain, nobela luzeak zein laburrak idazten hasi da eta libretista moduan ari da hainbat komedia musikaletan. Etorkizunari begira, bere proiekturik garrantzitsuena ez du orain arte egindakoarekin zerikusirik: aitite egin berri dute eta erronkari aurre egiteko prest agertu da kazetari trebatua.

7 urtetik gorakoentzat.

38 € Prezioa

36 € Harpidedun prezioa

Hartu zure ardi errimesa eta ibilbidea jarraituz... segi Jakue bidean beeeera.

ARGIA JOLASAK

# ArdiBidez

mahai jolasa

ESKAERAK: Tel. 943 371 545 • www.argia.com • denda@argia.com



Erreferentziako txartela: Finantza-txartelen erraztasun guztiekin eta gainera...

**Bidaia-asistentziako doako aseguru** abantailak era guztietako 2.000 establezimendutan.

Deskontuak mundu osoan izateko giltza.

Kontsultatu **BBK26 gida,** [www.bbk.es](http://www.bbk.es) orrian